

Karkara

karkara.com



Orioko eta Aiako aldizkaria · 2014ko maiatzaren 30a · 351. zenbakia. 25. urtea



Internetaren olatuan arraunean

KARKARAREN traineruan arraunean egiteko kideak behar ditugu, Orio eta Aiako arraunlariak, komunitatean elikatuko baitugu atari berria.

07

Herrian galdezka
Artisau azoka

08

Erreportajea
Erria Txikota! astea

18

Argazkiak
Talai mendi astea

22

Elkarriketa
Oihane Munduate

zerbitzua euskaraz
eman nahi dizugu

lagundu hobetzen



Eskaini 5 minutu galdetegia
erantzuteari eta parte hartu
produktu kulturalak erosteko
50na euroko 3 bonoren zozketan



bete hemen
galdetegia

eskerrik asko!



Gipuzkoako Foru Aldundia

Gipuzkoa
BERRIA

351

Karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

Kultur etxea

20810 Orio

943 83 15 27

karkara@karkara.com

www.karkara.com

EditoreaKarkara taldea
kultur elkarte**Zuzendaria**

Lore Berasaluze

Erredakzio taldeaOnintza Aiestaran,
Olatz Artola,
Miriam Garcia,
Iñaki Iturain,
Idurre Lizarralde,
Elizabete Manterola
eta Rikardo Uzkudun**Publizitatea**

Idurre Telleria

Ale honetako**boluntarioak**Antonio Campos,
Leire Beldarrain,
Olatz Beldarrain,
Enara Larreta
Joseba Orella,
eta Eli Ubegun**Diseinua**

Saioa Perona

BanatzaileakEsti Uranga eta
Leire Zinkunegi (Orio)
Eli Irureta (Aia)**Inprimategia**Gertu Koop. E. (Oñati)
Lege gordailua SS-346/90
ISSN 1132-1105
Tirada 3.200 aleKARKARAK ez du bere gain har-
tzen aldizkarian adierazitako
esanen edota iritzien erantzun-
kizunik. KARKARAN argitaratu-
takoa berreman daiteke,
osorik edo zatika, baldin eta
iturria aipatzen bada.

TOKIKOM

LAGUNTZAILEAK

Aiako Udala



Orioko Udala

Eusko Jaurilaritza
Kultura Sailak
diruz lagundutako
hedabideaGipuzkoako
Foru Aldundia

Aurtengo antxoa kosteran alarma piztu du anisakisak.

HASI BERTSOTAN

IBAI ESOTAN (DOINUA: ITSASO HORIDAGO ZATARRA)

Anisakisa

Argia astekarian, Bertso berriak atalean argitaratua

1Apurtu dira sokak, sareak...
Zer josten ditu *sanidadeak*?
Korronteen ta haizeen kontra
Kantauriko baporeak (bis).
Aingurak eta areak
asteotako mareak
lehertu ditu ur bareak.
Haserre daude bata txuriak
ta katiuska berdeak
txitxare batek mugitzen
ditu sabeleko txitxareak.**2**Zer irabazi ta zer galtzen den
jokoan asko baitago hemen
ba al dakigu elikadura
zeinek elikatzen duen? (bis).
Zail da egia jakiten
gomendio, irudipen...
sartu, irten, sartu, irten...
Ta arrazoia hortxe ari da
honi eman ta hari ken
saltsa honek zeini laguntzen dio
digestioa egiten?**3**Antxo freskoak egin du behera
arrantzaleen kostua bera.
Osasungintzak jo behar luke
arriskuez ohartzera (bis).
Galderak dakar galdera
ez naiz arriskatzen, zera
erantzunak ematera!
Hortik aurrera bakoitzak bere
ondorioak atera
soziedadeko afalostetan
plateretik platerera!

Publizitatea kontratatzeko:

Karkara

688 859 682 (Idurre)

publizitatea@karkara.com



karkara.com

Frontoiaren erabilera

Ekitaldi askotan gertatzen da eta denei kontuan hartzeko eskatu behar dizuet. Frontoiaren ardura Orioko Pilota Elkartek du eta presidente naizen alde-tik errieta txiki bat egitera noa.

Eguraldi txarra izanez gero, frontoian esaldia irakurtzen dudana bakoitzean umore txarrean jartzen naiz. Ondo iruditzen zait eguraldi txarra denean frontoia erabiltzea, horretarako toki ederra baita. Baina eskertuko nuke aurretik gurekin harremanetan jarri eta gutxienez baimena eskatzea edo libre dagoen edo ez galdetzea.

Guk asteburu askotan partidak jartzen ditugu frontoian eta kasualitatez egun horretan azaldu eta ezin dela jokatu ikusiko bagenu, zer egin behar dugu? Kanpotik datozen pilotariak haserretuko lirateke, guri federazioak errieta egingo liguke, eta gainera Disziplinari Batzordeak isuna jarriko liguke.

Mesedez eskatzen dizuet, hemendik aurrera ere frontoiarekin kontu deza-zuela, baina aurretik guri galdetuta. Eskerrik asko. ■ **Aimar Galarraga Ibarguren.** Orioko Pilota Elkarteko presidentea

Eskerrak Guerara Oriotik

Ametsa bete da, badatoz sahararrak Oriora. Amets hori egi bihurtzen bide-lagin izan ditugu udala eta herritarrak, hortaz, eskerrak eman nahi dizkiegu egin duten lan zoragarriagatik. Zuei esker lau ume etorriko dira gurera: Said, Bachir, Mariam eta Yasmine. Guztiek, 11 urte dituzte eta Guerara herrikoak dira, oriotarrak anaituta gauden herrikoak, alegia.

Ekainaren amaieran etorriko dira, San Pedro festekin batera. Jaietan ongi etorria egongo zaie, ekainaren 30ean, arratsaldeko 17:15ean, plazan. Ondoren, txokolatada eta sorpresa bat egongo da herritarrentzat. Guztiak gonbidatuta zaudete, denon artean ondo pasatzeko aukera izango dugu eta! ■ **Idoia Erasun.** Gueraraorio elkarteko presidentea

Gutunerako oharra

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARA bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.com edo gure lokalera eskura ekarri (Orioko edo Aiako Kultur Etxean) edo postaz bidali. KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina, beti, gure egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta norbait horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio. KARKARA bere egiten du eskutiaz laburtzeko eskubidea.

Areto futbolak: eskerrik asko!

Maiatzaren 17an, larunbatarekin, sailkapenean bigarren postuan bukatu duen Ataungo taldearen aurka 6-4 galdutako partidarekin amaitu zen C.D. Orioko Mirotzak taldearen lehen liga. Denboraldia osorik ikusita, bi fase ikusi daitezke: Lehen fasean taldea berria zela ikusten zen, jokariak beren artean ez ziren ezagutzen eta futboleko ohiturak areto futbolean ez zutela balio ere nabarmentzen zen.

Bigarren fasean berriz, gauzak asko aldatu ziren, partida guztiak lehiatzen, jokariak bata bestea ezagutzen eta entrenamentuetan prestatutako jokariak ateratzen hasi ziren.

Azken norgehiagokatan, gauza politak ikusi ziren hurrengo denboraldiari begira eta horrek energia positiboa ematen dio taldeari aurrerantzean jokatuiko dituen lehiak gogoz ekiteko.

Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiegu gure babesleei hau posible egin ahal izan dutelako. Beraz, eskerrik asko Alustiza autobusak, Galerna jatetxea, Arenas Aizpurua, Larrazpu eraikuntzak eta Orioko Udalarari. Benetan eskerrik asko.

Aurtengo San Pedro festetan ekainaren 28an futbito txapelketa antolatuko dugu eta hemendik jendea animatu

nahi dugu parte hartzera eta egun polit bat pasatzera. Anima zaitzete! ■ **Orioko areto futbol taldeko kideak**

Aiako oposizio buruaren elkarriketa dela eta

Aurreko KARKARAREN alean, Aiako Udala gobernuko oposizio buru den Aritz Arrutiren elkarriketa irakurri ondoren, gauza bat nabarmendu edo argitu nahi dut. Orioko Danbolin Musika Eskolaren inguruan aipatzen duen ageruzur hutsa da eta dirudienez, Udalean gauzak mahai gainean garbi utzi arren, oraindik gezur-bola biribildu nahian dabil; hau da, Danbolin Musika Eskolan diharduten Aiako bizilagunek, ez soilik Olaskoegia eta Santio Errekakoak, gaur egun eta datorren kurtsoan ere oriotarrek bezala ordainduko dute, inolako kalterik sortu gabe haiengan, bizilagun hauek aurrera eramandako ekimenaren ondorioz. Gainontzeko le-rreroi ez diegu inolako garrantzia edo baliorik ematen, demagogia hutsean erortzen baita. ■ **Igor Iturain.** Aiako Alkatea

Europar hauteskundeak 2014

Aiako EAJren izenean, lehenik eta behin, maiatzaren 25ean Europar Parlamenturako hauteskundeetan botoa eman duten denak eskertu nahi ditugu. Ondoren, eta batik bat, gure alderdia bozkatu duzuen 314 herritarrei eman nahi dizkiegu eskerrak, Izaskun Bilbao gure hautagaia, Europara eramaten lagundu diguzuelako eta herri mailan ere lanean jarraitzeko ilusioa areagotu diguzuelako. Bene-benetan mila esker. ■ **Aiako EAJ.**

Eskerrak emanaz

Orioko EAJ-PNVtik, eskerrak eman nahi dizkiegu oriotarrei eman diguten babesagarengatik, azken hauteskunde europearretan. Beste behin ere, alderdi bozkatuena izan gara Orion.

Emaizta hauek azaltzen dute oriotarrek konfidantza dutela EAJko pertso-

nengan erakunde ezberdinak kudeatzeko.

Guk lanean jarraituko dugu Orioren alde, datorren urteko udal hateskundeetan berriro ere oriotarren babesarekin kontatzen jarraitzeko.

Milla esker denoi. ■ **Orioko EAJ.**

Bi ohar Karelatik

Karela Kiroldegian hobekuntza obra batzuk egin behar direla eta, normalean irailean izan ohi den itxiera teknikoak ekainera aurreratuko dugula jakinarazi nahi dugu. Beraz, ekainaren 16tik 30a bitarte kiroldegia itxita mantenduko da. Irailean kiroldegia irekita mantenduko da hilabete osoan. Itxiera honekin kiroldegian ematen den zer-

KARKARAK behar ditu

· KARKARAREN 25. urteurrenean, ekainaren 28an, binakako lasterketan trafikoa bideratzeko 20 lagun

· Ekainaren 28ko euskalzaleen bazkari goxoa zerbitzatzeko 10 inguru lagun.

Antolatutako ekitaldiak ondo joan daitezen lagundu nahi duenak karkara@karkara.com helbidean edo Orioko Kultur Etxean eman dezake izaena ekainaren 15a baino lehen.

bitzua hobetu nahi dugu, batez ere gimnasioa. Obra egin ondoren uztailean zehar gimnasioaren doiketa definitiboa bukatzea espero dugu. Bestetik, Udalak eta Kiroldegia eskeintzen duten Uda Kanpainako iharduerak argitaratu direla jakinarazi nahi dugu. Besteak beste, umeek tenisa, arraunketa, igeriketa, padela edota jolasak egiteko aukera izango dute. Helduek ere, Aerobik, Pilates edo Zumba bezalako ihardueratan izena eman dezakete. Guztietan izen-emateak hamabostaldika burutu daitezke. Izen emateak ekainaren 2an, astelehen, ireki dira goizeko 08:00tatik aurrera. ■ **Karela Kiroldegia.**

ZORIONAK!

Parketarrak izan direnei

Orioko helduen artean euskararen erabilera handitzeko egitasmoa jarri zuen martxan hilabete hasieran Euskaraz Bizi-Bizi-k. Astearte eta ostegun arratsaldetan, euskara ahotan hartu eta jolasean airtzeko bildu dira guraso eta umeak Azkueko eta Antillako parkeetan. Euskaraz jarduteko jarritako gogoia eta intentzioak gure zorionak merezi ditu. Hortaz, bide beretik jarraitzeko deia egin nahi diegu guraso eta haur horiei, parkeetan ere euskara nagusitu dadin.



JAIO TAKOAK

- Amets Caperochipi Curiel, Donostian, maiatzaren 21ean.
- Naia Unanue Fernandez, Donostian, maiatzaren 13an.

EZKONDUTAKOAK

- Ez dago erregistratutako ezkontzarik

HILDAKOAK

- Pedro Jose Lertxundi Larraaga, Orion, maiatzaren 26an. 64 urte.
- Atanasio Sarasola Maioz, Laurgain-Aian, maiatzaren 17an. 77 urte.
- Pilar Etxezarreta Zabala, Iruñan, maiatzaren 5ean. 91 urte.
- Maria Luisa Salegi Osa, Orion, maiatzaren 5ean. 87 urte.
- Eugenio Caballero Barrero, Orion, apirilaren 25an. 64 urte.
- Esteban Azkue Azpiroz, Orion, apirilaren 22an. 90 urte.

Eskela edo urteurreneko gogoangarria Karkaran jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora:

943 83 15 27

ANORGA TXIBI S.L
KRISTALDEGIA

- komertzial instalazioak · beira bikoitza
- segurtasun beirak · dutxa-itxiturak eta irristailuak
- ispiluak · barandak · kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

Kinkladenda - Ume arropa

argine

www.lasnet.com/argine
Tel. 943 13 48 89

25eko DESKONTUA FAMILIA
UGARIEN TXARTELAREKIN

K karkara.com

Eskaintza berria

Eskaria

MAIATZAKO KRONIKA

Artisautza azoka Orioko plazan . KARKARA

Zerbeza feria ere Orioko plazan izan zen . KARKARA

Slacklyne ere plazan bertan egin zuten heldu nahiz hurrek . KARKARA

Zentzu eta kolore guztiak

“Zapore gozoarekin eta berri-
tasun usainarekin agurtu
dugu maiatza, sarean baitago
KARKARAREN webgune berria.”

Bost zentzumenak piztuta eman genion ongi eto-
rria maiatzari: kantu-jiran melodia herrikoiak
entzuten; jira eta bira ere ibili ziren bazkaloste-
an, dantzan. Biharamunean arnasa sakon hartu
eta baserriko produktuak usaintzen; arnasa
bota, berriz hartu, eta larru usaina oraingoan. Begiak dir-dir
bitxiak ikustean; guztiak, artisauak, eskuz eginak.

Begiak dir-dir eta parkean bla-bla. Belarria goxatzen da
orain jolas parkean, izan ere, parketarrek euskara darabilte
bihotzean eta ahoan. Bihotzez, mimoz, antolatu dute Erria
txikota! astea. Hitzaldiak, ekitaldiak, mahai inguruak, aur-
kezpenak, irteerak eta jolasak: kolore guztietako ekintzak.

Koloretsuak autopista azpiko zutabeak. Haurrek margola-
ri lanbidea ezagutu dute, eta bide batez, herria alaitu. Algarak
garagardo azokan; 12 garagardo ezberdin eta guztiak probatu
behar... ezta erronka makala, ez!

Erronka Aiako probalekuan Ibarako eta Astigarrako tal-
deek zutena. Zortzi emakume zortzi emakumeren aurka
550kg harriarekin eta 3.000 euro jokoan. Ibarak eraman
zuen saria, irabazi zuen apostua.

Aposturik ez baina kirola bai Talai Mendiren astean. Ekin-
tza franko herriko txiki nahiz handientzat: tailerrak, slackli-
ne, bideio emanaldia, orientazio praktikak eta Kukuarrira ir-
teera.

Zapore gozoarekin eta berrietasun usainarekin agurtu dugu
maiatza: Eskuartean dugu KARKARA aldizkariaren 351.
alea; egikari bihurtu da ametsa, sarean ikusgai eta erabilgarri
baitago webgune berria. Tok! tok! Ate-joka ditugu San Pedro-
ak. Eta bezperan, KARKARAREN 25. urteurren festa. Oriotar
eta aiar guztion festa!

Zer iruditzen zaizu artisautza azoka?



“Herria kanpoan ezagutarazteko aukera aparta da”

Herriaren alde egiten diren ekintza guztiak ondo iruditzen zaizkit; izan azokak, izan jaia. Edozer. Herriaren mesederako antolatzen dira eta Orio kanpoan ezagutarazteko aukera apartak iruditzen zaizkit. Artisautza azokak, esaterako, kanpoko jende ugari ekarri zuen gurea. Eta horrela, herria bizi-bizi mantentzen da.

Hiltzeaz dauden ohiturak ere biziberritzen dira, gainera, azokarekin, artisautza ia desagertzeaz baitago eta horrela ingurukoek eskuz egindakoa eza gutzen baitugu. Hortaz, ekimen interesgarria eta polita iruditzen zait azokarena.

Juan Carlos Martinez

Tabernaria



“Nahiago nuen zimitorioan egiten zenean”

Ikusle eta erosle izan nintzen artisau azokan. Baze bilen jendea, nire moduan, baina jende gehiago egoitea espero nuen.

Elizako zimitorioan egiten zenean gehiago gustatzen zitzaidan, nahiago nuen. Espazioa politagoa zen bertan, eta dekorazioa bat zijoan azokaren gaiarekin. Oraingoan, plazan, karpazuriak jarri dituzte eta artisau azokarako ez zaizkit horren egokiak irudituko.

Horrez gain, alor berdineko postu gehiegi zeuden, pitxi gehiegi. Artisautza ere bada etxeko jakiena eta alor horretan erren egiten zuen azokak. Aniztasun gehiago egon behar zuelakoan nago.

Maddi Ibarbia

Biomedikuntzan ingeniaria



“Harreman ona daukat etortzen diren artisauekin”

Izan nintzen eta asko gustatzen zait. Erosi ere egin nuen bertan. Artisauekin ere harreman ona daukat. Tabernara asko etortzen dira, kafea hartzera, pintxoak jatera... Komunera ere etortzen dira, egun guztia hor pasatzen dute eta niri ez dit axola nire komuna erabiltzeak.

Taloak egiten dituztenekin, adibidez, bereziki harreman ona daukat. Beti etortzen dira, eta zerbait behar badute laguntzen diet.

Tabernarentzako ere positiboa da artisau azoka, beti nabaritzen dugu beste asteburuetan baino mugimendu gehiago. Plazan egiten dituzten ekintzak onak dira guretzat.

Mila Urdangarin

Tabernaria

SU KIA
TABERNA JATETXEA
Ona eta gero... horta KOPA eta TOPAZ!
- OILASKO ERREAK ERAMATEKO
- EGUNEKO MENUA
- EGUNKARIAK
- OGIA
TF. 943 83 00 89
AGAROMEN 36, 1. DABUA

INSTALACIÓN DE VENTANAS
Sagasti
LEIHOAK
ROBERTO SAGASTI
Tel.: 943 13 00 77
Fax: 943 53 71 50
sagasti@sagastileihoak.com
Arantzale Kalea, 65
20810 ORIO (Gipuzkoa)

ODITZ
Bona gahaleko niretabak
gurea eta onakunera
tel. 943 83 00 89

ERREPORTAJEA



Txikota mutiloiari lotuta, portuan da “Erria Txikota” ontzia

Lau hilabete pasatxo falta zaizkio Oriñi Gipuzkoako Ikastolen Elkarteko festa handia hartzeko. Giroa pixkanaka berotzen joateko eta herritarrak **Erria Txikotaren olatuan** sartzeko, kultur aste berezia izan da maiatzaren 12tik 18ra.

TESTUA: L. BERSALUZE

ARGAZKIAK: KARKARA ETA KILOMETROAK

Astelehenetik igandera, ikusteko, ikasteko eta ekiteko ekitaldiak izan dira herrian. Herriko arrantzale izaera eta sorrera zizelkatuz, hizketarako, entzuteko, jolaserako, ezagutzeko, herri-historia astintzeko... aukera eskaini nahi izan du Oriñi Herri Ikastolak. Itsaso zahar eta olatu berrietatik pasa eta portuan da Kilometroetako ontzia. Txikota mutiloiari lotu diote, lehorrean geratzeko dator eta.

Ibilbidea

Urriaren 5eko festa non izango den argitu du aurrena Erria Txikota asteak. Bost gune nagusitan banatuta, Ikastolatik hasi, San Martingo ermitaraino igo, udal kanpinean barrena

Antilla hondartzara jaitsi eta autopista azpiko itzalean deskantsua hartuta, erri albotik Ikastolara buelta egingo du 5,632 kilometro inguruko ibilbidea. Gune bakoitzeko egitaraua zehazteko dago oraindik, baina horiek bilduko dituzten ekitaldiez gain, ibilbidean zehar bestelako ekintzak ere izango direla jakinarazi zuten ibilbidearen aurkezpenean. Kilometroak 14-ko ordezkariak, garai bateko festari keinu

“Garai bateko festari keinu egin ez, jaira datozenek ibilbidea egin dezaten lortu nahi dute”



eginez, jaira datozenek ibilbidea egin dezaten. Zirkuitoa elkarrekin egitera ere animatu ziren 50 inguru herritar.

Bideoklipa ere egin dute publiko Erria Txikota astearen baitan. Elkarlanean aritu dira Maialen Sarasua, Joseba Orella, Olatz Zugasti eta Urtzi Garmendia irudiaketa letramentuz ezkontzeko, 2014ko Kilometroak bustiko duen arrantzale giroari eutsiz.

Hitzaldiak

Arrantza girotik abiatutako bi hitzaldi izan dira Erria Txikota astearen baitan. Balearen eguna eta San Juan baleontzia hizpide hartuta aritu zen Jon Maia jendaurrean.

Arrauneko kontuak izan zituen bigarrenak hizpide maiaztaren 15ean. Xabier Sukiaren gidaritzapean, gertuko saio jostagarria, bizia, eskaini zuten Mikel Orbañanosek, Igor Makazagak, Jon Salsamendik eta Joxean Olaskoagak.

Erronka

Iazko Tolosako edizioan abiatutako erronka Oriora ekarri eta proposatutako saioak probatzeko ere baliatu dute kultur astea. Kilometroak egun bertan egingo diren probetan aritu ziren jo eta ke DBH 3 eta 4ko ikasleak hilaren 7an. Marea hilak tarteko, goizez eta arratsaldeaz jardun zuten erronkan. Nor baino nor aritu ziren gazteak.

Bestelakoak

Ingurumenaren garrantzia azpimarratzeko helburuz, beste zenbait ekitaldi ere antolatu ziren: Oria errioaren txokoak piraguaz ezagutzeko parada izan zuten 18 lagunek; etengabeko kontsumoaz hausnartu eta pertsonen garraioa errazten duten tresnen -bizikletak, patinak...- bigarren eskuko azoka izan zen plazan, bestalde.

Horiez gain, eguneroko martxa alde batera utzi eta kultur ekitaldi bereziak ere egin zituzten Ikastolako umeek geletan. Igandean, berriz, herriko haur guztiek izan zuten jolasteko eta margotzeko aukera.

AZKEN TXANPAREN ATARIAN

Hamaika ekimen ospatuta eta jaiaren bidean mugarri diren ibilbidea eta bideoklipa aurkeztuta, ederki berotu ditugu motorrak! Bero-bero, itsa-saldiaren abiadura bizkortu eta iritsi da azken txanpari ekiteko unea!

Marea benetan emankorra ari da izaten, eta Erria Txikotatik asteko azken arrantza oparoak, ez du etenik. Ekainaren 7an ospatuko da Ikastola eguna: ikasleen emanaldiaren ondoren, aurtun, Kilometroak jaiaren harira eta garai batean egiten zen bezala, herri bazkaria antolatu da: ikasle, guraso, ikasle ohi eta herritar guztientzat! Ekainaren 21ean Orion ospatuko da Euskal Herriko Eskolarteko Bertsolari Txapelketako finala, eta Euskal Herriko Gazte Orkestraren topaketak ere gurean izango dira... Erria txikotatik aldizkariaren lehen alea ere aurki izango da kalean, eta Klikmetroak ekimena ere ekainaren hasieran emango da argitara.

Klikmetroak: metroak babestuz lagundu Ikastolak! Ekainaren hasieran jarriko da martxan klikmetroak.kilometroak.net helbidean. Gure helburua zirkuitu birtualari ahalik eta buelta gehien ematea da, eta horretarako, milaka pertsonen parte hartzea eta metro horien babesleak behar ditugu. Helburua, bisitari bakoitzak metro bat egitea da. Bakoitzak metro bana eginda, ibilbideari ahalik eta itzuli gehien ematea. Bisitarien metro bakoitzeko, babesleak dirua jarriko dute Kilometroak festaren alde.

Aurtengo ibilbideak 5632 metro ditu orotara. Zirkuituari bira bat baino gehiago ematea izango da aurtengo erronka. Denon laguntzarekin ziur gaude: baietz lortu!

Joseba Orella. Kilometroak 14-ko koordinatzailea

PUBLIZITATEA

Tel.: 943 835845

ROSANA ARRUTI
ARGAZKILARIA

Aita Lertxundi, 26
Orio

fotografianarri@gmail.com



WWW.FOTORAMIRO.COM

943 831048
610 697 668

Riky & Niko



Portu
ERRETEGIA

Santxo Erreka Auzoa, 29
943 89 4434
20809 AIA-ORIO

braskak lasenba ohesten
purrikto erakotik eginen moma...



PERTSIANAK
AKO MAZ

Aluminio, PVC
Venezianak
Motorrak...

Tel. 943 13 29 01 Mugikorra 600 70 52 27



PATXI OLIDEN
URDITEGIA

Hemengo horagia.
Ehoko produktuak: tripaki, odolki,
txokorri, txorizo, kroketak...

Eusko Gudari, 25 Tel. 943 83 00 10



OREKA FISIOTERAPIA

**TENDINITISAK
LUMBALGIAK
ARTROSIA
ZEPALEAK ...**

MASAJE TERAPEUTIKOA
BENTOSAK, AKUPUNTURA
ESKUZKO TERAPIA
OSTEOPATIA

943 13 35 37

ARIZAGA KALEA, 12 BIDEA



Maider Arrillaga Sarasola · 138. Kol. zenb.
Arrantzale 63 · 20810 · Orio · Gipuzkoa
Tel. 943 575 361

ninarri
PODOLOGIA ZENTROA



MIRANDA
ARROTZ LARMA S.L.

Tarima, ate, leiho, eskalera...
Behar diren arrotz lanak
egingo dizkizugu

Urdaneta bidea, 1 · 660 42 53 70 · ZARAUZ




LUXARBE
igeltseritza

Igeltseritza orokorra, denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe

Lan txukuna eta merkea

Tfnoar: 943 83 59 00



Maiatzean eta ekainean
ESKULAN TAILERRAK

mauka

PAPERDENDA LIBURUAK ETA OPARIAK

TEL: 943. 572083
FAX: 943. 571190
i.asenjo@hotmail.es

INES ASENJO
IBAI ONDO 13
20810 ORIO



kutixi
kafetegia
GOSARI GOWAK

Arizaga 9, 20810 Orio
Tel: 943 13 15 17



Ile apaindegia
MARIJO

Neska eta mutilentzat

Eusko Gudari, 8-bajo
Tel. 943 13 47 29
Orio



Auzo txikiaren handitasuna



Leire Beldarrain

Aia herrian bada makina bat auzo. Horietako batez hitz egin nahiko nuke gaurkoan, Andatzaz, edo guk deitzen diogun bezala, San Pedroz. Auzo txikia, baina oraindik bizitasun pixka bat baduena. Bertan jaio, bizi eta ikasitakoak gara ahizpa eta biok. Oraindik jaiero egiten den erromeriako trikiti eta pandero soinuaz haziak garelako, San Pedrok irrintzi bat merezi duelakoan gaude.

Auzoan aktibitate handirik egon ez arren, bada bizitasuna eman dion txoko bat: Uhartemuño Kultur Elkarte. Orain dela urte batzuk sortu zen elkarte hori.

“Erromeriko trikiti eta pandero soinuaz haziak garelako, San Pedrok irrintzi bat merezi du”

Bazkari eta afariak egiteko lekuaz gain, beste zentzu bat hartu du gure auzoan; izan ere, bertako jendea bildu eta auzoari identitatea emateko balio izan du. Txoko horri esker Auzo Eguna, Barrikotea, festak eta beste zenbait ekintza antolatzen dira urtean zehar; eta bertan bizi diren haur, gazte, heldu eta adinekoak elkartzen dira.

Orain, maiatzaren 31n, Rally igoera ere badugu, Andatzatik hasi eta Aiako erdiguneraino. Jende asko hurbiltzen da urtero egun horretan, eta Uhartemuño elkarteak lan handia egin behar izaten du egun hori antolatzeko. Nola ez, auzoko jendearen parte hartzea eta laguntza ezinbestekoa da igoera aurrera eramateko.

Hain auzo txikiak horrelako mugimendua izatea pozgarria delako, gaurkoan aipamen bat egin nahi nioke gure Andatza maiteari. Bere txikitasunean handi delako.



Olatz Beldarrain

Ados, Leire, Aia eremuz handia da oso; biztanlez, aldiz, txikiagoa. Herri askorekin egiten du muga, ondorioz, inguruko herrietara egiten dugu ihes, askotan. Aisialdiko denboran batez ere; Oriora pintxo potera, Zarautzera parrandara...

Ezin ukatu gu geu ere sarritan bertatik irteten garela, baina aitortu beharra dugu, oro har, etxezuloak garela. Gure txoko txikiak xarma berezia duelako eta goxotasunez hartzen gaituelako.

Baina gaur egun aipagarria da, kanpora joan ordez auzoan bertan ekintzak antolatzeko hautua egin duen Uhartemuño, txapela kentzeko modukoa baita. Auzokoak bertan entretenitzeko aukera ematen digu; lagunartean solasaldi ederrak izateko uneak barne hartuz, esku soinuaz gozatzeko eta baita kotxeen burrunba entzuteko ere noiz edo noiz.

“Aipagarria da auzoan bertan ekintzak antolatzeko hautua egin duen Uhartemuño”

Argi dago Leire, zuk esan duzun moduan, honek elkarlan bat eskatzen duela; haur, heldu zein gazteen laguntza behar duen puntu komuna delako. Sarritan eztabaidak, iritzi kontrajarriak izanagatik, aurrera egitea da garrantzitsua auzoaren alde. Bertan egiten den guztia auzotik eta auzoarentzat egiten baita. Horrek du balioa; oztopoak izanagatik aurrera jarraitzea, maldan gora joan behar bada ere bidean aurrera egitea eta zailtasunak zailtasun, ekintzak antolatzeko.

Hain auzo txikiak horrelako oihartzuna izatea atsegina delako, gaurkoan eskertu egin nahiko nioke gure auzoko elkarteari. Gure txikitasunean handi egiten gaituelako.



Elizabete Manterola

Bueltaka eta bueltaka

Bueltaka eta bueltaka. Azken aldian hara eta hona buelta askotxo eman behar izan dut kotxez eta nazkatu samar nabil. Amorragarrienak ez dira autopistako kilometro luzeak, hiri barruan sartu eta atera beharra baizik, biribilguneetan bueltaka mariatu antzera iristen baita bat klasea ematera Gasteizen. Eta biribilguneak edo rotondak ez dira hirietan bakarrik gehitu, begira zenbat ditugun dagoeneko Orion!

Pentsatzen jarrita, askorako eman dezake biribilgune bategi. Izan liteke jolaserako toki, norez da ibili rotonda batean bueltaka zein bidetatik atera erabaki ezinik? Izan liteke, baita ere, antzezlan baten eszenatoki, orain gutxi kultur etxean ikusi genuen Ta oain ze? piezarena hain zuzen, bizitzaren biribilgunea mintzagai zuena, hara hor metafora ederra! Biribilguneak balio du, nola ez, Gabonetan herria apaintzeko, garagardo azokaren berri emateko edo jada erabiliko ez di-

tugun traste zaharren aparkaleku gisa. Eta, noski, biribilgune bat izan daiteke baita ere politikari, ingeniero edo herri antolamenduaren arduradunen arduragabekeriaren erakusgarri.

Pasa den astean bertan lanera bidean langileak ikusi nituen errioren beste aldean dagoen neurritz kanpoko rotonda ditzosozkoa dagokion neurrira ekartzen. Bazen garaia!

pentsatu nuen aurrena, baina amorrak hartu nituen segidan.

Gogorra da gero oraindik berri-berri dagoen biribilgunea jada obretan egotea! Ez dugu adornatzeko denborarik izan eta oraindik?

Trainerua hondartzan, errioren amarratutako txalupa Txankan... Anguletarako ala eder bat tokatuko da ziurrenik oraingoan, bahe eta guzti, baina nigatik jar dezatela rotonda erakitzea erabaki zuenaren irudia korrokoi artean erdi itota! Proposamen hoberen bat duenak, esan dezala!

Biribilguneak balio du Gabonetan herria apaintzeko. Eta, noski, biribilgune bat izan daiteke baita ere politikari edo herri antolamenduaren arduradunen arduragabekeriaren erakusgarri.

SARASUA ERRETEGIA

Plater bereziak:

- Arrain zopa
- Arrain eta haragi erreak

Eusko Gudari, 29 **ORIO** Tel.: 943 83 00 05 / 943 13 25 32

Santi Barranco aseguru agentea

Arizaga 2, 2. ezkerre ORIO

Tf: 618 581 398 - 659 218 221 e-posta: sbarranco@segurosbilbao.com

SEGUROS BILBAO Grupo CATALANA OCCIDENTE



Antonio Campos

Zahartzaroa zertarako?

Gizartean parte hartzen jarraitu nahi dugu, baina ez bakarrik hitz egiten edo eztabaidatzen, baizik eta erabakietan, eta zaharrak behar duten eraldaketa sozialean.



aur egungo gizarteko adinekoek zertan erabiltzen duten beren denbora libreaz aztertzen badugu, hiru une bereiziko genituzke, nahiz eta behin baino gehiagotan hirurak elkartu ere egiten diren:

1.- Ia denbora libre guztia aisialdirako.
2.- Denbora librearen zati bat, handitzen doana, aktibitate kulturaletarako.

3.- Egun sortzen eta indartzen ari dena. Multzo honek gizartea bera eraldatzea eta hobetzea du helburu, hau da, aktiboki parte hartzen dute gizartean.

Hirugarren zati honetan kokatzen bagara, erabat zaharkitutako politika publikoak aurkituko ditugu lehenik, zeren zaharrak menpeko gisa bakarrik ikustne gaituzte, hau da ia-ña ez deusak, ezertarako balio ez dutenak. Ez da hori guk nahi dugun gizartea, amesten dugunean denok bizi ahal baitezakegu, bakoitzaren berezitasunak eta duintasuna kontuan izanda. Nahi dugu izan, eta sentitu ere, pertsona autonomoak eta baliagarriak garela. Zaharrak gizarteko %20 bagara, kopuru horretatik %10 ere ez da iristen menpeko izatera.

Gizartean parte hartzen jarraitu nahi dugu, baina ez bakarrik hitz egiten edo eztabaidatzen –nahiz eta hori guztia oso garrantzitsua den–, baizik eta erabakietan eta zaharrak behar duten eraldaketa sozialean. Pertsona helduok gure kezak aditzera eman nahi ditugu baina ez exigentzi jarrera pasibo batetik.

Gero eta gehiago dira kolektiboan oso ondo prestatuta daudenak; eta, gainera, sasoiko daudenak bai adimenez, baita osasunez ere. Pertsona horiek beren denbora librearen zati bat gizarteari eskainiko balieke, eta horretarako baldintza egokiak behar dira, gizarteak eskertu egingo luke. Hor ari dira, hor ari gara elkarte ezberdinak eta elkarte horietan badago lekua zerbait eskaintzeko borondatea duenarentzat.

Bote prontoan, hona bata bestearen atzetik eginkizun batzuk: ikasten jarraitu bizitza osoan, adinean sustatutako estereotipo eta mitoak eraldatu, bizi itxaropena luzatu izanari irtenbideak bilatu, diru sarrerak eta funtsezko bizi-baldintza duinak bermatu, osasun eta gizarte zerbitzuen mailak hobetu, pertsona helduenganako tratatu txarrak ezagutu eta zuzentzen saiatu...



The screenshot displays the Karkara website with a navigation bar at the top containing links for ORIO, AIA, GALAK, KOMUNITATEA, MULTIMEDIA, and ZERBITZUAK. The main header features the Karkara logo and the tagline 'Orioko eta Aiako orainkaria'. The content area is divided into several sections:

- Plaza libreak daude Maria Maestra haurreskolan**: An article dated 2014-05-26 11:15 ORIO, discussing the availability of free spaces in Maria Maestra's nursery school.
- Asentzio feria 2014**: An article dated 2014-05-27 10:55 INGIURUMENA AIA, featuring four small images of people and animals at a fair.
- Ekainetik aurrera ateak itxiko ditu Karelak, doiketa lanak direla eta**: An article dated 2014-05-26 11:39 ORIO, with an image of people working in a field.
- Helburua bete gabe, etxera**: An article dated 2014-05-27 14:43 ORIO, with an image of people playing sports.
- BEREZIAK**: A sidebar section listing specific events like 'Karkarak 25 urte' and 'Euskaraz bizi-bizi'.
- KOMUNITATEA**: A sidebar section for community news, including a post from 'nikol irizar'.

At the bottom of the main content area, a banner reads: **KARKARA.COM berriaren aurkezpena egingo dugu**.

Karkara.com atari berria, komunitatean elikatzen

TESTUA: O. ARTOLA ETAM. GARCIA
ARGAZKIAK: KARKARA

Maiatzaren 27an aurkeztu dugu KARKARA.COM atari berria. Itxuraz berritua dator, baita eskeletoan ere. Multimediata-suna eta parte hartzea dira webgune berriaren oinarriak.



ERREPORTAJEA



Dena minutu bakarrean egiten duen gizartean bizi gara. Asko eta maiz kontsumitzen dugu eta, batez ere, begiekin. Irudiez inguratuta gaude eta komunikazio bide eraginkor eta indartsuena bihurtu da. Irudiok pantaila ezberdinetatik kontsumitzen ditugu, hiperpantaila fenomeno delako eta.

Mugikorra sakelari, telebista parean, ordenagailua magalean, tableta alboan... Kontsumitzeko ohiturak aldatu egin dira. Sarera konektatuta gaudela hartzen dugun arnas eta konexioa uneoro egin dezakegu. Hedabideon gaur egungo erronka, hortaz, sarean dugun komunitatea trinkotzea, indartzea eta zabaltzea da.

Kazetaritzaren sorrera garaietatik etenik gabe aldatuz joan da teknologia eta, ondorioz, baita kazetaritza eraldatuz ere. Kazeta-eredua paperekotik urrundu egin da nolabait ere; internetek aurea hartu dio paperari zenbait alorretan. Horregatik guztiagatik garai berrietara egokitzeko premia ikusi eta webguneko atari berria martxan jarri berri dugu KARKARA.

Webgune berria, itxura berria

Gizakiak entzun edo irakurtzen duenaren %2 gogoratzen duela diote adituek; eta ikusten duenaren %5. Bizitzen duenaren %20 gordetzen du ordea. Ikusi, irakurri, entzun eta bizi, guztiak hartu nahi ditu bere baitan KARKARA.

Atari berriarekin berrituta dator KARKARA.com: idatzi, bideoak grabatu eta editatu, argazkiak atera eta bildumak sortu, besteak beste. Gakoa, elementu guztien uztarketan dago. Formatuen bat egitearekin berehalakotasuna irabazi nahi

“Nahi duzuen aigotzeko aukera izango duzue, nahi duzuenetan eta nahi duzuen tokitik. Bitartekaririk gabe, klik batekin.”



dugu eta multimedialtasuna sustatu. Plataforma multimediei esker hainbat euskarri erabili daitezke, eta aukera hori baliatuko dugu webgune berrian.

Aia eta Orio bereizten dira goiko menuan, herri bakoitzeko albisteetara zuzenean joateko. Ohiko albisteez gain, bideoak, argazki galeriak eta audioak ditu atariak. Kanal bereziak ere biltzen ditu, pil-pilean dauden gaiei buruzko berriak mul-tzokatzeko.

Bi zutabe nagusi ditu atariak: albisteekin bat, eta beste bat eskuinean, agenda, komunitatea, eguraldia, bereziak eta beste hainbat elementu biltzen dituena.

Baina internetaren olatuan arraunean egiteko kideak behar ditugu, Orio eta Aiako arraunlariak. Herritik eta herriarentzat egiten baita kazetaritza; eta zuek, herritarrek, baitzarete protagonista. Hortaz, webgune berriari bizia eman diezaiokezue; irakurleak izateaz gain, komunitateko kide eginda.

Komunitatea, kideen bateragunea

KARKARAK ere sarean hauspotu nahi du kazetaritza, herritar eta kazetarien arteko sarea eratuz. KARKARAKO webguneak Komunitatea izeneko atala izango du, eta bertan, parte hartzeko aukera izango duzue: argazkiak, argazki bildumak, bideoak, kronikak... nahi duzuen igotzeko aukera izango duzue, nahi duzuen eta nahi duzuen tokitik. Bitartekaririk gabe, klik bakar batekin zuen ekarpena KARKARAREN webgunean egongo da.

Teknologia berriek ahalbidetzen duten interaktibitateaz baliatuta zuek eman dezakezue egiten duzuenaren berri. Izan norbanako, izan talde; KARKARAK guztiei zabaltzen dizue atea. Beraz, sartu KARKARAKO atarira eta senti zaitezte etxe giroan, Komunitatea zuen etxea izatea espero baitugu.

25 urteko ibilbidea bada ospatzeko aitzakia

Mende laurdena betetzen du aurten KARKARAK; 25 urte Orio eta Aiako istorioak kontatzen eta bi herrietako historia idazten, euskaraz. Herritarrek egiten dute KARKARA, eta herritarrekin ospatu nahi dugu urtebetetzea. Horregatik, ekainaren azken asterako egitaraua osatzen ari gara hitzaldi, kontzertu, bazkari eta beste hainbat ekintzekin.

Ekainaren 25ean, asteazkenean, Iñaki Perurenaren Harri eta Herri hitzaldia izango da Aian 20:00etan Aiako Kultur Etxean.

Hilaren 27an, Aiako plaza kleraz margotzeko aukera izango dute haurrek, meriendatu ondoren, iluntzean, Arramazka taldeak kontzertua eskainiko du toki berean.

Ekainaren 28an, San Pedro bezperarako, egun osoko egitaraua antolatu dugu Orioko festen barruan. Goizean joaldunek dei egingo diete herritarrei binakako lasterketan parte har dezaten. Bonberenea txarangak herri bazkaritarako bidea alaituko du lasterketa ondoren. Bazkal aurretik, ospakizun ekitaldia egongo da, 25 urte ez baitira egunero betetzen; eta bazkalostean, Orioko abestiak kantatuko ditugu, musika lagun, eztarriak ez daitezen hoztu.



Mendiari begira

Maiatzaren azken igandeko Kukuarri eguna aitzakia hartuta aste osoko egitaraua osatu zuen Talai Mendi mendi elkarteak. Mendizaletasuna ardatz hartuta, orientazio ikastaroak, slackline egiteko jardunaldiak, eskalatzeko eta humareatzeko aukera eta Kukuarri-ren tontorrean hamaiketako goxoaz gozatzeko modua eskaini ditu taldeak.



Kukuarri, oriotarren bihotzeko mendi tontor

Errioari zor omen dio izena eta izaera Oriok. Erriora begirako herri arrantzalea da. Errioa horren eder egiten duenak ere handia du garrantzia. Mendi tontoretik eder ikusten da Oria; eder Orio. Kukuarriren magalean bizi gara oriotarrok.



ARGAZKI MUNDIALA



Talai Mendiko txarangako kiderik gazteena

Txaranga soinuaren erritmoan ibiltzen dira azkenaldi luzean Arrutienean. Izan ere, etxekoa dute Talaimendi txarangako kiderik gazteena: Ganix. Oso txikitatik ekarri ditu txindata jotzeko gogoa eta trebezia. Eusebio Lasarte txindatarekin eskuinetara eta Dani Barrenetxea danborrarekin ezkerretara, erritmoari fin jarraitzen dio Ganixek.

Jare arreba txikia ere bere bidetik doa, gainera. Kontzertu ederrak emango dituzte etxean! Txarangak egindako bidean arrastoa lagatzen dute haurrek, musika-zale guztien arreta berenagatzen dute-eta.

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri KARKARARA eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk ekarritakoa dela jarrita.

KARKARA

Lizaso dekorazioa

Tf:
943 83 07 84

Faxa:
943 24 87 18

Eusko Gudari, 48

libe
dietetika
elikadura aholkularitza

eusko gudariak 35 :: ORIO
[sarrera Aranzale kalea]

943 53 64 94 :: 697 23 86 56
libegarmendia@gmail.com

Joana Murgiondo
Aseguru-agenzia

ASEGURUAK

C C I
CERAM, CLEVEL, LACOSTE & CIA S.A.

Abeslari, 4- 2. esk.
Tfnoa: 943 13 46 07

KOLON TXIKI
elkaritzegia
jokabidea

Herriko Enparantza, 4
ORIO
Tel. 943 83 00 44

ardoak, urdaikiak, gaztak,
kontserbak, janari prestatuak

etxeraino eramaten ditugu

KVKV

943 83 09 84

aita lertxundi, 36
ORIO

“Gidariak gustura ibiltzen dira; jokua ematen duen bidea da”

Iñigo Arriaga eta Andoni Iruretagoiena

Aiako VII. Igoerako antolatzaileak

30 segunduro auto bat aterako da irteera puntutik, Andatzatik. Bi minuturen bueltan Aiako kaskoan izango dira. Horrela 45 auto inguru; guztira, 4 orduko ikuskizuna.



KARKARA

OLATZARTOLA

Duela urte batzuk auto krosa egiten zen Andatza auzoan. Lege aldaketak gastu ekonomikoa handitu egin zuen, eta horrek, krosa desagertzea ekarri. Kotxeen burrunba hotsik gabe igaro zituzten urte batzuk, eta duela zazpi urte, auto-egarria itotzeko igoera antolatu zuten. Aurten, maiatzaren 31n, VII. edizioa izango da.

Zazpi urtez antolatzeko auto zaletu asko dagoen seinale?

Jende ugari gerturatzen da igoerara, eta askok, egun osoko plana egiten dute. Aurreko egunean etorri, tokia hartu, bertan afaldu eta igandea bertan pasatzen dute. Batzuetan zakarrak ez dituzte jartzen ditugun ontzietara botatzen, eta hori egitea eskatzen dugu. Gainontzean, giro ederra egoten da, batez ere eguraldiak laguntzen badu.

Zuek ere egun guztiko plana antolatu duzue, ezta?

Goizean, 10:00etatik 12:00etara egiaztapen proba izaten dute. Kotxe guztiak geldirik egoten dira, ikusgai, museo batean bezala. Arratsaldean entrenamentua izango da, eta jarraian, igoera. Hiru txanda izango ditu, eta berotzeko txanda kontuan hartuta, guztira, lau orduko luzatuko da.

Kotxe bat, ordea, bi minututan goran da...

3.8 kilometroko ibilbidea du igoerak, bide motza da. Guk luzeagoa egin nahi genuen, baina bideko zuloek baldintzatu egiten gaituzte. Laburra izateak azkarra izatea dakar; kotxe arinenak, gutxi gora-behera, 1:51ko denbora egin dezake.

Ibilbidea, motza baina polita.

Gidariak gustura ibiltzen dira, jokua ematen duen ibilbidea da eta. Bihurguneak ditu, eta horrek bizia, jokua ematen dio igoerari. 45 kotxe inguru aterako dira, ez da kopuru makala.

Zenbateko handia hobby honen prezioa, ezta?

Kapritxo garestia da. Kotxea preparatu egin behar da eta horrek diru asko eskatzen du. Emaizetan ere eragin zuzena dauka, diru asko gastatzen baduzu kotxea hobe izango baituzu. Batzuk bere manipulatu behar izaten dute kotxea. Gidariak izatez gain mekanikoak ere badira, hortaz. Afizio garestia da, eta diruak mugak jartzen ditu.

Diruak baldintzatu arren kategoriak kotxeen ezaugarrien arabera al dira?

Motorraren arabera hamar maila ezberdin daude. Izena ematean ordaintzen dute kuota lasterketa amaitzen duten guztien artean banatzen da. Horrez gain, kategoria bakoitzean sariak daude eta parte hartzaile guztiei opari bat egiten zaie. Saria beti berdina eraman ez dezan egiten da hori.

Kotxeak beti lotu dira abiadurarekin...

Denbora gutxien irauten duena da irabazlea, hortaz, abiadurak garrantzia dauka. Baina badira oso abilak direnak eta kotxearekin jolasteko gaitasuna dutenak. Ikusgarria da bai bata, bai bestea eta maiatzaren 31n horiek guztiak ikusteko eta gozatzeko aukera izango duzue Aian.

“Ama bakarraren eta seme-alaben arteko lotura, estua eta gozoa”

Oihana Munduate

Ama bakarra

Familia eredu ezberdinen arteko elkarbizitza ahalbidetu du gaur egungo gizarteak. Tradizionalki, aita eta ama banakoa izan da babestuena, baina bestelako eredu batzuk ere onartu ditugu denboraren poderioz. Halere itzalpean jarraitzen dutenak badaude oraindik ere.

TESTUA: L.BERASALUZE

ARGAZKIAK: KARKARA

Duela urtebete etorri zen Oihana Munduate Santutxutik Oriora bizitzera. Amatasunari gogoz heltzeko asmoz, bizitzak hartutako norabide berriari gurean ekin dio. Ama bakar izatea erabaki zuen eta urte eta erdiko bi semetxoak alboan, bizitakoa eta bizitzen ari dena kontatzeko prest dago, ilusioz.

Familia mononuklearra izatea erabaki duenik ez dut eza-gutu orain arte. Zuk noiz eta nola hartu zenuen erabakia?

Betidanikoa dut ama izateko nahia. Halere, koadrillan 25 urte inguruan hasi ziren lagunak seme-alabak izaten eta nik oraindik ez nuen ama izateko deia jaso.

30 urterekin ez neukan bikotekiderik. Ama izan nahi nuen eta haurrak izateko eta hezteko adin-mugaz kontziente nintzen, nahiz eta teknologiarik esker atzeratzen ari den muga hori. Hortaz, 30 eta 33 urte bitartean inseminazioari buruzko informazioa biltzen aritu naiz. Seguru pribatura jo nuen aurrena. Apenas argitu zizkidaten dudak. Prezioen berri, ordea, eman zidaten eta nire aurrekontutik kanpo zegoen.

Zenbat diruz ari gara hizketan?

2.000 euro kostako zitzaidala esan zidan ginekologoak. Gerora, han eta hemen tratamendua egin dutenei galdetuz, batez beste 5.000 bat euro direla ondorioztatu dut. Hartu beharreko botikek igoko dute prezioa, oso garestiak dira-eta!

Inseminazioa Osakidetzarekin eginez gero, aldiz, Eusko Jaurlaritzak diruz laguntzen du prozesua: inseminazioa bera doakoa da eta batez beste botiken %40 ordaintzen du. **%40a esan duzu. Babesa nahikoa eta nabaria al da zifretan?** Nabarmena da. Injekzio bakar bat behar nuen batean, erre-zeta eskatzeko astirik ez nuela-eta, farmazian 192 euro ordaindu nuen botika. Errezeta egin zidatenean, 189 euro bueltatu zizkidaten.

Denera, 30 bat euro gastatuko nituen botiketan prozesu osoan; gehiago ez. Osakidetza babesarekin, garestiagoa da haurdunaldi proba erostea botikak eskuratzea baino.

Atzera eginez, nola abiatu zenuen inseminazio-prozesua?

Pribatutik egitea garestia izango zela ikusita, Osakidetza joan nintzen. Galdera asko nituen buruan eta ginekologoak ez zidan erantzunik eman. Gaztea nintzela, bikotekidea topa



nezakeela eta urte batzu barru bueltatzeko esan zidan, eskatuko zuela orduan ospitalerako bolantea. Animo aldetik burumakur samar geratu nintzen. Erabakia hartua nuen arren, erabat baldintzatuta zegoen. Gerora konturatu naiz, ginekologoak garbi esan ez bazidan ere, protokoloagatik dela: 35 urtetik beherako emakumezkoak ez dituzte hartzen.

35 urte nituela ohiko azterketara joan nintzen eta ginekologoak berak atera zidan gaia. Oraindik ama izateko gogoz nengoela-eta, Gurutzetarako txanda eskatu zidan.

Prozesuari heldu aurretik, etorkizun hurbileko mundua berriaren arabera antolatu beharra ere izango zenuen ba?

Amarekin aritua nintzen gaiaz. Ez-jakintasunagatik edo beldurragatik beste alternatiba batzuk bilatzeko esan zidan, ezagun batekin inseminazioa egiteko edo... Baina argi nukan ez nuela halakorik nahi. Lagun harreman bat izan zitekeena konplikatzeari iruditzen zitzaidan. Gainera haurrarekiko afektibitatea edo lotura sor daiteke kasu horretan.

Beste aukerak aztertuz, ez nuen ezezagun batekin txortan egin nahi. Nire moralitateari segiz, beste horri nire asmoen berri eta parte hartzeko aukera eskaini behar nizkioke. Umeei ere egia esan beharko nieke. Ez zait garbia iruditzen.

Semen ezezaguna erabiliz inseminatzeko aukera nuen eta zertan ibiliko nintzen inori konpromezuak eskatzen!

Haurra biologikoa izateak lehentasuna al zuen zuretzat?

Bai. Ezin izatekotan, beti dago adoptatzeko aukera, baina bikoteentzako zaila dena, zailagoa da pertsona bakarrarentzat. Baldintzak oso gogorrek dira eta prozesua oso luzea da.

Gainera, nik haurdun egon nahi nuen. Erabakia errazteko orduan, faktore askok izan zuen eragina. Adinaren kontua izan zen erabakiorrena eta kontrari, lan finkorik ez izatea.

Lana ez dut diru-iturri soil gisa ikusten, gustuko lana egin nahi izaten dut eta lan aldaketa asko izan ditut. Etxebizitza bat erosteko asmoa nuen gainera.

33-35 urte arteko epean hartu nituen erabakiak, dena amatasunera bideratuta: etxebizitza erosi, inseminazio prozesuan hasi... Aurrera egiteko prest nengoen, horretarako gauzak bidean utzi behar banituen ere. Ez dut zentzu horretan bertigo handirik eduki. Horrez gain, gurasoen aldetik sekulako laguntza daukat, zaintza aldetik eta diru aldetik.

Lanera joateko orduan *logistika* antolatu behar izaten duzu.

Ahizpak eta koinatuak hasieratik eman didate babes. Gurasoei dagokienez, amari goizegi aipatu nion eta hortik zerbait ikasi nuen: *erabakiak nik pentsatu eta nik hartu behar ditut*. Hortaz, ni bakarrik hasi nintzen informazio bila. Gurutzetan onartzen nindutenean esango nien gurasoei. Haiei esateko modua, ordea, berezi samarra izan zen: Denboralditxo bat kanpoan nintzela ospitaletik nire sakeleko telefonora deitu beharrean gurasoen etxera deitu zuten, irailean txanda neukala esateko. Aitak txintxo-txintxo hartu zuen enkargua eta etxera bueltatzean eskatu zizkidan kontuak. Gurasoak laguntzeko prest nituen. Handik aurrera neronek jasotzen nuen informazio guztia eman nien.

Babes hori gabe egin al daiteke aurrera?

Ez zait gustatzen diruari garrantzia ematea, baina badauka; beharrezkoa dugu. Ekonomikoki egoera egonkorra duenak bakarrik egin dezake. Lehentasunak zehaztu beharko eta dirua eta denbora ondo antolatu beharko ditu. Agian, gauza propioak egiteko zailtasunak izango ditu haurrak hazi arte. Dena den, urte batzuetako kontua da, elkarrekiko menpekotasuna gutxitu arte. Aldiz, seme-alabak bizi osorako dira.

ELKARRIZKETA

Tratamenduaren ondorioz, gainera, bizpahiru ume izateko aukera handia izaten da.

Inseminatzeko azken pausoa eman aurretik, ospitalean argi azaltzen dituzte ume kopuruei buruzko probabilitateak: bi-kiak izateko %20a eta hirukiak izateko %5a. Osakidetzak gainera hirutik gora ume izanez gero, gutxienez hirukiak izatera behartzen zaitu.

Inseminazio prozesura bueltatuz, nolakoa da?

Gurutzetan tokatu zitzaidan ginekologoak oso fama ona du, baina oso zuzena eta lehorra da. Galderaz beteta jarraitzen nuen nik eta lehen txanda hartan berak bakarrik hitz egingo zuela esan zidan, bazekiela noraino eman behar zidan informazioa eta kitto. Aho bete hortz utzi ninduen.

Prozesua bere horretan azaldu zidan. 3 proba daude lehen fasean: odol analisiaren bitartez hormona kopurua eta abar kontrolatzen dute aurrenekoan; uteroa begiratzeko bide bidez bigarrenekoan eta tronpak hirugarrenean. Hiru probak ondo ateraz gero, gorputza prest dago haurdunaldiari ondo erantzun ahal izateko. Bide batez, gerorako tratamenduak nolakoa izan behar duen zehazten laguntzeko balio dute probek.

Lehen analisia egiteko hilerokoa etorri zain egon behar izaten da. Hori eginda, emaitzak ginekologoari erakutsi behar izaten zaizkio eta sei hilabetera ematen dute horretarako txanda. Lehen fase honen baitan txandak sei hilero izaten dira eta dena ondo joanda ere, oso luze joaten da. Horrek haserretu egiten ninduen sarritan. Dena den, protokoloak beharrezkoak direla ulertzen dut, kasu oso ezberdinak daude-

“Oso hotza izaten da inseminazio prozesua; oso profesionala bai, baina informazio teknikoan bakarri oinarritzen da; ez dago maila pertsonaleko traturik”



lako, eta zerbitzuak hain pertsonalizatua ezin duelako izan.

36 urte nituen proba haiek bukatutakoan. Hura izan zen galderak egiteko momentua. Aurrera segiz gero atzera bueltatzerik ez neukala adierazi zidan ginekologoak, eta inseminazio prozesua nolakoa zen azaldu zidan: sei inseminazio izaten dira eta seiak jarraian. Horiek eginda haurdun gertatzen ez denak bestelako arazoren bat izan dezake eta, hortaz, latentzia-fase bat hartu behar izaten da.

Eta nolakoak izaten dira inseminazio aurreko egunak?

Hilerokoa etortzean hasten da hormona tratamendua. Xiringa batekin sabela ziztatu behar izaten da egunero, ordu berean. Nire kasuan, hiru helburu zituen botikak: obuluak sortzea, heltzea eta askatzea.

12 egun inguru irauten ditu hormonazioak. Animo aldetik, gorabehera handiak eragiten ditu eta prest egotea komeni da. Izan ere, horrelakorik ez da aipatzen kontsultetan. Oso profesionala, baina oso hotza izaten da dena; informazio teknikoan bakarrik oinarritzen da eta ez dago maila pertsonaleko traturik. Sendagileen eskuetatik jende asko pasatzen da, tartean seme-alabak izateko zailtasunak dituztenak. Denetan ezin dute inplikatu, eta, hortaz, profesionalki jarrera lehorra hartzen dute. Hala argudiatzen dut nik.

Hormonak hartzen hasi eta 10 egunera ekografia bat egiten dute, hormonon egoera nolakoa den jakiteko. Ekografiak erakutsitakoaren arabera, obuluak heltzeko xiringak noiz hartu behar dituzun adierazten dizu ginekologoak, beste txanda bat ematearekin bat. Obuluak askatzearena, berriz,

inseminatu aurretiko egunean egiten da.

Profesionalek ahalik eta optimizazio handiena bilatzen dute. Ekografia bakoitzeko odol analisiak egin behar izaten dira eta azkenean, datu pila izaten dituzte esku artean, prozesua zein bidetatik eraman nahi eta behar duten jakiteko.

Inseminazioari dagokionez, oso momentu hotza da: tubotxo baten bitartez, xiringa bat erabiliz, semena sartzen dizute. Denbora gehiago pasatzen duzu arropa eranzten eta jantzen inseminatzen baino.

Handik aterata, hurrengo hilerokoa etorri zain egon behar izaten da. Halakorik balitz, hormonekin hasi behar izaten da berriz. Hilerokorik gabe, haurdunaldiko proba egin behar izaten da etxean eta positibo emanez gero, ginekologoarenean txanda hartu. Anbulatorioko emaginarekin jarraitu behar da ondoren haurdunaldia. Dena den, erditze-data baino bi hilabete lehenago ospitalera joan behar izaten da prozesuaren kontrol bat egitera.

Nola gogoratzen duzu haurdunaldi probako positiboa?

Berezi samarra izan zen, bi aldiz egin behar izan bainuen. Izan ere, estreinako probak negatibo eman zidan. Hortik bi egunera berriz egin nuen eta positibo eman zaidan. Ekografia egin nuen Gurutzetan eta bi umetxo zirela esan zidaten. Poz-pozik bueltatu nintzen etxera.

Egoten al da semena aukeratzeko modurik?

Ez. Dena den, ahalik eta bateragarritasun handiena bilatzen saiatzen dira. Horrez gain, inseminazio bakoitzeko semena ezberdina da. Ondorioz, haurdun gertatzeko balio izan dizun semenaren erreferentziak eskatzeko aukera ematen dizute, gerora, aita bereko seme-alaba gehiago izan nahi izanez gero. Zerbitzu hori ordaindu egin behar izaten da, hileko kuota baten bitartez. Azaleko zerbait iruditzen zait niri. Azken batean, umeen nortasuna da garrantzitsua eta hori ez du semenak erabakiko.

Aita zein den jakiterik ba al dago?

Euskal Herrian ez dago modurik. Aitari buruz ematen duten datu bakarra da fisikoki zein psikologikoki osasuntsu dagoe-la. Horrez gainera, arraza berekoa izaten da. Pribatutik datu gehixeago ematen dituzte: aitaren altuera eta begien eta ilearen kolorea.

Estatu Batuetan, adibidez, haurrak 18 urte bete eta aita zein den jakin nahi izanez gero, aita biologikoari berari galdetzen diote haurra ezagutu nahi duen ala ez.

Semen bankuak berdinak dira pribaturako eta publikorako eta ginekologoaren arabera, oso kontrolatuta daude. 20 urte inguruko gizonezkoen haziak biltzen dituzte.

Umeak izanda, nolakoa da zure egunerokoa?

Momentu oso gogorak daude tartean, baina ez ama bakarra naizelako, baizik eta bi ume direlako. Bat aukeratu behar izatea oso gogorra da: zeini eman bularra aurrena eta zein utzi negarrez... lehen urtean jaso ditudan golpe psikologikoak horregatik izan dira.

Bestela, eguneroko jardunean handia da erritmoa eta golpea jaso bezain pronto beste zerbaitetara joaten naizen. Umeak helduz doaz, eta hartu-eman horretan ikasiz eta moldatuz goaz denok aurrera.

Ama bakar izategatik gauza pertsonal asko ezin izaten di-

“Ama naizenetik nire mugetan irekiagoa naiz, batez ere, ama bakarra izateak laguntza onartzea eskatzen duelako. Nire intimitatea gehiago konpartitu behar izaten dut”



tut egin, baina ez dut horregatik sufritzen. Gertukoek haurrak haiekin uzteko esaten didate, baina umeek erreferentzia bakarra ama dute eta ni joateak erreferentzia gabe lagatzen ditu. Hortaz, nire gauza horiek atzeratzea erabaki dut.

Horrez gain, laguntza espero eta jasotzen ez dudan momentuak egiten zaizkit gogorrak. Une oso puntualak dira. Izan ere, hormonak tarteko, gorabeherak izaten ditut; gauza onak zein txarrak handitasunean hartzen ditut.

Bikotekidearekin horiek konpartitu eta askatu egiten dira. Umeek ematen didate niri babes hori. Asko eta asko ulertzen ez badituzte ere, oso txikiak direnetik jasan dituzte nire negarrak, pozak... Haserre egon eta askatu beharra daukadanean lasaitzeko espazio bat behar dut umei ez dagien eragin, baina ezin dut inora joan haurrak hor daudelako. Horrelako akkudeatzea zaila izaten da. Horren aurrean, momentuan egiten ari naizen hori zer den adierazten diet semei.

Nire sentimenduak transmititzeko tarte hori faltan botatzen dut, lagun bati kontatzerako aurre-lanak eginak ditut dagoeneko eta. Halere, mundua ez da bukatzen zerbait gaizki ateratzen denean eta hurrengoan hobeto aterako dela.

Ama bakarra izateagatik diru-laguntzarik jasotzen al duzu? Bikiak izateagatik jaso dut laguntza; ama bakarra izateagatik ez. Foru Aldundira joan nintzen familia ugariaren liburua eskatzera, zeren legediak badu klausula bat jartzen duena alargunek familia ugariaren liburua izateko eskubidea dutela bi seme-alaba –eta ez hiru– edukita. Nire arrazoiketaren arabera, alargunen egoera bertsuan nago ni; haien sustentu ekonomikorik gabe gainera. Baina alargunen kasua bakarrik hartzen du kontuan legeak.

Zure familian beste kiderik irudikatzen duzu?

Ez dut baztertzen, baina oso zaila egiten zait besteren bati ateak irekitzea. Umeek are zailagoa egin dezakete, sartzen denak ardura bat ere hartu beharko luke-eta.

Halere, ama naizenetik nire mugetan irekiagoa naiz, batez ere, ama bakarra izateak laguntza onartzea eskatzen duelako. Nire intimitatea gehiago konpartitu behar izan dut; baztertu ere bai, kanpoko jendearekiko eta umeekiko. Semeekin egiten dut dena: lo, dutxatu... intimitatea apurtzea bada, baina aldi berean prozesua bera pribilegio bat da. Nik bakarrik hartzen ditut erabakiak.

Dena den, harreman kontuak dira eta naturaltasunez hartu behar dira. Ez naiz pertsona bat nire orekan erosotasunean nagoena eta alferkeriaz begiratzen duena.

Alde ona litzateke hori agian?

Gauzak argi ditudanean bai; zalantzak ditudanean ez horrenbeste. Bikote batean biek ados jarri behar dute erabaki bat hartzeko eta nik nire erara hezten ditut. Dena den, beste-
een ikuspuntutik, badirudi edonork har dezakeela parte zure erabaketan bakarrik zaudelako. Heldu horiei aurre egiteko babesik gabe zaude kasu horietan. Hori guztiari buruzkoak ere ikasten zoaz.

Ama bakar izan nahi, baina gizartean nola kokatu asmatu ezin duenari nola lagundu?

Familia eredu asko ari dira sortzen. Gero eta ohituago gaude horretara. Ni topikoekin aurkitu naiz, inuxenteki esaten direnak. Pediatrak behin galdetu zidan aita esaten ba al daiten umeek. Ez, baina *ta* esaten badakite. Ez dute gaizki hartzen denaden.

Komentarioak asko egongo dira; niri ez dit eragiten. Horrekiko kezka duenak gauzak ondo planteatu beharko ditu.

Duda asko izaten dira hasieran: *gaixorik baldin banago zer? Zer kontatuko diet umei, eredu nagusia ez bada berena?* Ezjakintasunean planteatzen dira horiek, baina gero aurre egiten zaie. Halere, zalantzak dituenak niregana jo dezake, nahi badu. Nire ikuspuntutik, hasieratik zintzoa izatea dut helburu eta semei dena kontatzea.

OSPAKIZUNA



Zorionak idazle prestuei!

Naroa Landa eta Uxue Manzisidor, Urdanetako bi neska hauek, sari bana eskuratu zuten Zarauzko Udalak urtero antolatzen duen Salvatore Mitxelena literatur lehiaketan. Lehen aldia zen lehiaketa horretan saria jasotzen zutela Orokieta eskolako ikasleek. Pozarren hartu zituzten diplomak maiatzaren 9an, Modelo zineman. *Sagutxo txikia* izena zuen Naroaren ipuinak eta *Lore gorria* Uxuerenak.

HANDIK ETA HEMENDIK

“

Benito Lertxundik aspaldi esan zuen erria txikota!, oso gazterik ekin zion bere nabigazio artistiko askeari. Urteak aurrera doaz, baina belak erriatzen eta leman segitzen du. Gipuzkoako urrezko dominarekin saritu dute haren nabigazioa.”

Anjel Lertxundi, idazlea, Berria, maiatzaren 22a.

“Bidasoatik atera nintekeen, baina hemen, etxekoengandik gertu, gauzak ondo egi-ten jarraitu dezaket. Asko pentsatu dut eta uste dut erabaki zuzena hartu dudala.”

Jon Azkue, eskubaloiz jokalaria, Diarionasco, maiatzaren 13a.



Nagusitasun intelektualala

Matxismoa gizarte-arazo askoren erroan dago, eta norbana-koaren izatearen ulerkera okerrak sortua da. Hain serioa den gaia hain era sinplistan erabiltzeak ez du batere laguntzen.



Eli Huegun

Euren bikotekide edo bikotekide ohiak erailzen dituzten gizonezkoak, adin guztietako emakumeak psikologikoki jazartzen dituzten gizonezkoak, emakumeen osotasun fisikoari eraso egiten dieten gizonezkoak, emakumeak erabakitze eskubiderik ez daukagula aldarrikatzen dutenak—emakumeak ezetz esateko eskubidea daukala ulertzen ez dutenak barne.

Lan eta familia bizitza kontziliatzeko arazoak ematen dituzten nagusiak, goi zuzendaritza karguetarako emakumerik aukeratzen ez duten konpainiak, emakume izateagatik bakarrik lan berberaren kontraprestazio modura ordainsari txikiagoa ematen duten enpresaburuak—izan hau txiki, ertain nahiz handia—, zenbait lan emakume lanak direla pentsatzen dutenak, eta kontrara, beste zenbait lan emakumeak egin ezinezkoak direla pentsatzen dutenak, emakumeen kirolari garrantzia kentzen dioten komunikabide nahiz federazioak, eta oro har, gizonezko izate hutsagatik emakumearen gainetik baleuden jokatzeko dutenak.

Badirudi jarrera horien guztien atzean dagoen arrazoa sinplea dela, ez dela fikzioa besterik, matxista deituko diote-

la susmatzen duen gizonezkoaren beldurrak dakarren fikzioa, eta gailentasun intelektualala erakustez beldur den gizonezko horrek errealitatean islatzen duen ondorioa.

Arias Cañete jaunaren hitzengatik ari naiz, noski. Barrena behar da gero! Emakume baten aurrean nagusitasun intelektualala erakusten duen gizonezkoa matxista dela uste al duzue? Nik behintzat ez. Inteligentzia ez du generoak markatzen, eta sexuak ez gaitu jokaeran baldintzatu behar. Hala ulertuta neukan nik behintzat, baina tira, baliteke hala ez izan eta nik ez jakitea, emakumea naiz. Matxismoa gizarte-arazo askoren erroan dago, eta norbana-koaren izatearen ulerkera okerrak sortua da. Hain serioa den gaia hain era sinplistan erabiltzeak ez du batere laguntzen.

Nazioartean ere sona izan dute Alderdi Popularrak Europako Parlamenturako hautagaitzan aurkeztu duen zerrendaburuaren hitzek, baina berdin izan dio, 6 egun behar izan baitzituen barkamena eskatzeko.

Gauza jakina zen, baina bere burua herriaren ordezkariatzat daukana horrela mintzo bada, ez daukagu etorkizun handirik!

Faroeko bakailaoa daukagu

ITSAS MENDI

gutuziak

Eusko Gudori, 5 Tel: 943 24 87 74 Orio

ITSASADARRA, S. L.

Jose Angel Iradi Udabe



aseguru artekaria
finika administratzailea
gestoria
enpresa berriak sortzeko diru laguntzen kudeaketa

Tel 943 89 40 29 Fax 943 83 54 98 itsasadarra@itsasadarra.com
Ibai Ondo 4. behea, 20810 Orio

HAIZE BERRI

tuberna-jateketa-kafetegia

Plater konbinatuak,
bokatik,
hanburgesak,
ruileak,
eguneko menua...

eta etxera eramateko zerbitzua!



Bidea Ibañeta, Orio 1 98 942 82 16 22 Asteleke piztena Orio



INDO

Garraio frigorifikoa
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

Ubegun industriagune, 4
Tel. 943 894 024
Fax. 943 130 144
20809 AIA - ORIO



**GABON
T A B E R N A**

Plater konbinatuak
Ongizartekoak

943 83 06 09



**IGLESIAS
SARRAILAGILEAK**

Javier Iglesias Fernández
637 723 308
iglesias@javieriglesias.es
20810 ORIO



24 ORDUKO ZERBITZUA

- ATEAK irekitzen ditugu
- SARRAILA-ZILINDRO ALDAKETAK
- ATEAK IXTEKO MALSUKIN ALDAKETA
- KOMUNITATEBETZAKO ZERBITZUA

ARISTERRAZU
jatetxea

Andatza auzoa AIA
Tel. 943 83 45 21



Zarautz

Hileta Zerbitzuak

> Hilerrien kudeaketa
> Hileta zerbitzu orokorrak
> Zerbitzu iraunkorra



Harrespil

Hilerri Zerbitzuak



Araba kalea, 35 · ZARAUTZ · Gipuzkoa · Tel.: 943-89 49 37 · Faxa: 943-89 49 41 · e-posta: zarautz@harrespil.net

URAITZ
burdindegia
jantzi-sagardak

Endakiz Tfax: 943 83 18 97

XABIER URRETABIZKAIA

- Instalazio elektrikoak
- TDT antenak
- Atezain automatikoak

60 urte zerbitzua ematen

943 83 17 74

Arrantzale, 31 20810 ORIO

tel/fax: 943 89 00 69
Bikala kalea, 4. 20800 ZARAUTZ

URBIDE S.L.

ITURGINTZA_BEROGINTZA
GASA_BAINU ERAKUSKETA

Presupuestak konpartasak gabe



MANTEROLA S/L
ESFERA ETA RETENTZIOKO
BALBULAK

Santiago auzoa - 18 postaketa
Tel. 943 830 743
Fax. 943 134 834
Email: manterola@manterola.com
20810 ORIO - GIPUZKOA

Enferako balbula
AEMOR kaitate duartagiduna



Zaragueta
Herri Eskola **ORIO**

telefonoa: 943 89 40 52
e-mail: 012137aa@hezakuntza.net



**ASADOR
XIXARIO**

Eusko Guterri Kalea, 2
Tel. 943 830 019 - ORIO

URANGA
burdindegia

Opari, menaje eta erremintak

fer.uranga@euskalnet.net
Telefax: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5

OROIMENAREN KUTXA



Txokolateneako eraikina . KARKARA

Txokolatenea eraitsiko dute

Oroimenaren kutxa

Datorren astelehenean, maiatzak 26, hasiko dira Oa kaleko 2. zenbakidun eraikina –Txokolatene-ko etxea– eraisteko lanak. Obrak lau aste iraungo du.

Horrela zioen albisteak, maiatzaren 22an jaso nuen berri tristeak. Etxe bat eraitsiko dute. Lau astean akabo, kito, etxea lurrarekin berdinduko dute, ez da etxerik izango. Gero, berria egingo dute, eta etxe berria hobe izango da, seguru, baina Txokolatenea iragana izango da, ez da gure artean egongo. Eta zerbaitek barrenean krak egin dit, eta burua lanean hasi zait, oroimenean. Txiki-txikitako paisaiaren barruko etxea da niretzat Txokolatenea. Antoneneko etxetik, nire jaiotetxeko leihotik, ageri zen panoramako beste hainbat etxe ere joan ziren betiko. Udaletxea su-garretan ikusi nuen aspaldiko udaberri bateko hego haize bortitzeko egun batean, eta haren orde z herriko etxerik itsusia eraiki zuten, udaletxe. Arin y Embileko fabrika ere kiskalita ikusi nuen leihotik, gabe egun batez. Gure Txoko tabernatik lokutoriorainoko etxea ere berria da; Anjeloriyonekoa botatzen ikusi nuen, eta oraingoa eraikitzen, herritarren topagune ziren arkupeak herriarentzat galtzen, kaleari puska eder bat lapurtzen. Orain Txokolatenea botako dute. Etxe hori ere bada zerbait Orion: Txokolatenea etxea. Izena eta izana.

Izena. Zenbat txokolatetar dago Orion? Zenbat oriotar ezagutzen ditugu 'Txokolate' ezizenez? Etxepean taberna bat egon da urte askoan. Orain dela 10 bat urte itxi egin zuten. Herritar askok pena handia hartu zuten taberna ixtearekin, toki maitea zen. Itxi baino urte batzuk lehenago, jabeek izena aldatu zioten, eta 'Kaixo' izendatu. Izen-alaketak ez zuen arrakastarik izan: oriotarrontzat Txokolatenea izaten segitu zuen. Izen berezia du etxeak, gozoa, gozoegia, horren erraz alde batera uzteko. Nondik ote dator izena? Bada dioenik Donostia aldeko baserri baten izena dela eta handik etorritako batek ekarri zuela jaiotetxearen izena, goititzen. Bada dioenik Txokolate kastako arbaso baten kolore beltzaranari zor zaio la ezizen zapoetsua.

Eta izana. Orain taberna ez, etxe osoa galduko dugu, Txokolatenea osorik. Etxeak hitz egingo baligu... Garai batean, 1936ko gerra aurreko azken urteetan batzokia izan zen, EAJ-ren Orioko batzokia. Han antolatzen zen herriko abertzaleen politika, han ematen zituzten txuri-beltzeko pelikula mutuak, han egiten zuten antzerkia... Gero, urte asko geroago, Franco hil ostean, ELA sindikatuak herriko egoitza izan zuen etxeko lehen solairuan, terraza daukan lokalean.

1970eko hamarkadan zorua aldatu zioten etxe aurreko kaleari, galtzada-harria kendu eta asfaltoa eman zioten. Kalea berritu zuten. Orain etxea. Leku estrategikoan dago Txokolatenea: Goiko Kale eta Beheko Kale lotzen dituzten eskaileren ondoan, herriko sarreran... Txokolatenea aurreko kaletik, Aritzagatik, sartzen ziren garai batean baserritarrak beren idi, behi, asto eta zaldiekin, aldameneko plazatxoko Rafael Herreroren perrategira bidean; handik, kanpinera eta hondartzara oporretan zetozkigun kanpotarrak; handik, igaro dira aliron guztiak, bandera irabazitako estropalariak udal-terako bidean. Askok ikusitako etxea da Txokolatenea, barrura eta kanpora begira.

IÑAKI ITURAIN

Ohiturak aldatzen, birziklapen tasa hobetzen



Moilako edukiontzietan ontzi arinen edukiontzira dagokiona botatzen. KARKARA

Udaletxeko balkoian zintzilik dauden zenbakiak aldatzen doaz, handitzen. Orioko birziklatze-tasaren indizea da zintzilikatuta iragartzen dena duela urte erdi hasita.

Oriotarren ohiturak aldatzen ari dira, gero eta hondakin gehiago biltzen baita gaika. Hartutako bidean aurrera jarraitu nahi da, usadioak orrazten eta birziklapen tasa handitzen. Orain arte-

ko lana fruituak ematen ari da, baina asko dago oraindik egiteko.

Atzera begirakoa

Hondakinen mahaia sortu zen urtea da 2011. Orioko birziklapen tasa baxua zela eta hainbat neurri hartzea adostu zen han; lehendabizikoa *Ez da marroa, birziklatzea beharrezkoa da!* kanpaina izan zen.

Lehengo urtean hondakinak ongi banatzeko ikastaroak eman zituzten, bi deialditan eta bi hizkuntzatan. Azalpen horiek biltzen dituen gida oriora.com webgunean eskegi zuten eta zalantzak argitzeko helbide elektronikoa sortu: oriozerozabor@gmail.com. Arrandegietan paperaren eta plastikoaren erabilera gutxitzeko tuperrak ere banatu zituzten.

Aurten, orain arteko fintzen

Hondakinen mahaitik abiatu zen espazioak zehazten dituen maparen egitasmoa. Herri guztian birziklatzeko puntuak egokitu dira, organikoa botatzeko edukiontziak hirukoiztu eta errefusa jasotzen dutenak murriztu.

Hiru auzokonposta gunek jarri ditu Udalak, eta ekainetik aurrera, gunek berri bat jarriko da Gazteleku inguruan. Bestetik, elkarte gastronomikoei birziklatzeko baliabideak eskaini zaizkie.

Lortu daitekeen helburua

Hiru urteren buruan %15 igo da Orioko birziklapen tasa; egun, udaletxearen atarian 42 zenbakia dago zintzilik. Urte beteko epean %65 birziklapen tasa lortu nahi du hondakinen mahaia. Helburua bat eta bakarra da: herritarrek gehiago birziklatzea eta hondakin gutxiago sortzea.

%65a lortzea denon ardura da Bildu

Herritar batzuk ez birziklatzeak sortutako kalteak herriak jasaten ditu, ingurumenari kaltea ez ezik, galera ekonomikoa dakartelako. 15.000 euro aurreztu ditu udalak 2012tik 2013ra birziklapen tasa igo egin delako. Oriotarren betebeharrak dira birziklatzea eta zabor gutxiago sortzea. Hondakinen mahaiko eragileenak adostutakoak elkarrekin defendatzea eta %65era iristeko, inplikatzeko.

Hondakinak birziklatzea, gora! Orain

Gora goaz eta ez dugu goia jo. Falta da, baina gertuago gaude. Gutxierekin asko egiten dugu, pentsa denok pixka bat gehiago eginez noraino iritsi gaitzkeen. Zer da denok? Herritar guztiok, kontsumitzaile oro. Zer esan nahi du pixka bat gehiago? Herritarrek eskuan zer edo zer botatzeko duenean segundo bat hartzea zakarrontzi egokia aukeratzeko. Guztion gutxi hori metatuta asko da.

Bide onetik goaz EAJ

Aurreko legealdian 5. edukiontzia erabiltzeko apustua egin zuen Udalak. 2010tik hona 1.200 familia inguru dira organikoa bereizteko ahalegina egiten dutenak eta gero eta birziklatze tasa altuagoa dugu. 2010ean %22ko tasa zuen Oriok eta gaur egun %45en gaude, beraz, EAJren partez, zorionak! 5 edukiontzietako sistemak eta sentsibilizaio kanpainak balio izan dute eta balioko dute aurrerantzean.

PUBLIZITATEA


**Orioko
Herri
Ikastola**

Guraso Kooperatiba

ABESLARI KALEA, 8

TEL: 943 83 47 04

FAX: 943 13 09 38

orio@ikastola.net

www.oriokoikastola.net

TAILER MEKANIKOA AUTO LAN



Pelotari 5
943 83.00.34

Zure Konfidantzazko
Gertuko Tailerra

26 GURPIL



Baxoalde 2 - 3 - 20810 Orio (Gipuzkoa)

Tf 943 835 980 www.2gurpil.com bigurpil@hotmail.com

azkue



Tf: 943 130 438

azkue

Carmen eta Txomin
ARRANDEGIAK



943 83 05 37 / 943 83 27 47

bodegasERRASTI, S. L.



Eskualderako banatzailea
Zudugarai, Getariako txakolina
Ilagares, ardo gorri nafarra
Bodegas Gailur: Señorio de Laurgain
Gailur eta Ardanegi,
Arabar Errioxako ardoak

Eusko Gudar, 46 ORIO • 943 83 03 86 / 83 59 52 • E-posta: bodegaserasti@euskalnet.net

arkaitz taberna
...orio...

- Ogitartekoak - Pintxoak
- Plater konbinatuak
- Karta
- Terraza ederrarekin
- Giro ezin hobea

abeslari kalea 6 - 943 83 16 57

XS

arKiteKtura
herrikobarra 6, zarautz

eraikuntza zerbitzuak
errehabilitazioak
obrak
proiektuak
txostenak
ITE-ak
eraikinen mantenua

Borja Agirresarobe Lopetegi
635 731 722

azkue
karrozeria



Ubegun industrialdea, 7
20809 Aia-Orio
Tf/fax: 943 83 51 86
carroceriasazkue@hotmail.com

■ LARDIZABAL HERRI ESKOLA

Sarrolako oreinak desagertzeko arriskuan



Maiatzaren 5ean, 5. eta 6. mailako ikasleak Pagoetako Parke Naturalera joan ginen gure inguruko animaliei buruz gauza gehiago ikastera. Animalia asko ikusi genituen, baina harrigarria izan zen Sarrolan bi orein eme bakarrik ikustea. Begiraleak azaldu zigun beste oreinak hil egin direla. Familia bereko oreinak nahastu direnez, alegia, odol berririk sartu ez denez, orein kumeak ahul jaiotzen dira eta gaztarora heldu aurretik hil egiten dira.

■ ZARAGUETA HERRI ESKOLA

Elkar biziz, bizikletan joango gara eskolara



Gure eskolan aspalditik antolatzen dira bizikleta-jarduera desberdinak: ikastaroetara bizikletaz joatea, Mendi Elkartearen bizikleta irteerak... Oraingoan, maiatzak 26tik 30ra, Bizikleta Astea izango da eta egunero eskolarako joan-etorriak bizikletaz egiteko aukera izango dugu guraso eta irakasleekin. Honekin natura zaindu, kutsadura gutxitu, eta gainera, ariketa fisikoa egingo dugu. 5. mailako gehienok animatu gara, aukera polita da eta.

■ ORIOKO HERRI IKASTOLA

Arantza: errepikatzeko moduko esperientzia



DBHko 2. mailako ikasleek bidaia bat egin zuten Nafarrora, Arantzara hain zuzen ere. Hango aterpetxean igaro zizuten hiru egun, maiatzaren 7tik 9ra. Horretarako, bi urtez astero diru pixka bat jartzen joan ziren behar adina diru lortzeko. Han hainbat ekintza burutu zituzten; kobazulo batean sartu ziren, zuhaitz parkean ibili ziren, ginkana egin zuten eta beste zenbait ekintza. Ederki pasa zuten eta errepikatzeko moduko esperientzia iruditu zitzaaien.



Enara Larreta

Erronka

Dakizuenez aurtengo Kilometroak gero eta hurbilako dago, jada ez da askorik falta urriaren 5a iristeko. Urtero bezala, goiz goizetik hasi eta gualdera arte kontzertu eta ekintza ugari izango dira haur, gazte zein helduentzat eta horietako bat da Erronka. Baina, zer da Erronka?

Gipuzkoako ikastola ezberdinen artean egiten den lehia da Erronka, indarra, abilezia eta burua erabiltzera bultzatzen zaituen lehia. Iazko Tolosako Kilometroetan du jatorria, han jokatu baitzen lehen aldiz eta 14-15 urteko gazteak Kilometroetan parte hartzeko asmotan antolatu zen. Arrakasta ugari izan zuenez, aurtan Oriok botako die Erronka gainerako ikastolei.

DBH 4 eta 3. mailako ikasleek parte hartu ahal izango dute bertan, eta ikastetxe bakoitzeko talde bakar batek izango du lehiatzeko aukera. Taldeak 8 pertsonaz osaturik egon behar dute, 4 neska eta 4 mutil, baina horrez gain, jokalarien ordekoak eta adinez helduko bi kapitain ere beharrezkoak izango dira, horietako bat ordezkari eta bestea pertsona famatu bat. Mota ezberdinetako frogak ugari izango dira: eskalada, balsa eta piraguen karrera... gainera, egun osoan zehar izango da hori ikusteko aukera, herriko gune ezberdinak zeharkatuz joango baita.

Erronka, indarra, abilezia eta burua erabiltzera bultzatzen zaituen lehia

KARKARA.COM



Ontziekin ibaia zeharkatuz joan behar dute lanera saregileek. KARKARA

Gizartea

Saregileak lanera joateko zailtasunekin

Egoera txarrean diardute lanean saregileek azken hilabeteetan: errioren beste aldeko kofradiarako bidean, Arribiribil inguruan, luizia izan zenetik ezin dute oinez edo ibilgailuz iritsi lantokira. Erria baporean zeharkatuz joan behar dute sarea konpontzera saregileek apirilaren hasieratik.

Ez da batere segurua -dio langileetako batek-, eguraldi onarekin ongi, baina txarra eta euria egiten duenean edozer gauza gerta daiteke. Gaia asko luzatuko den beldur dira, inork ez baitie erantzunik ematen; hortaz, ez dakite noiz hasiko diren menditik eroritako lurra jaso eta errepidea txukuntzen.

@ <http://karkara.com/orio/1401277465643>



HASI TXIOKA

Zer iruditzen zaizu
karkara.com
berria?



Kultura

Kubanoaren biografia-liburua salgai Orion

Pedro Abreu zenaren biografia-liburua plazaratu du Joan Anton Abellan historialari eta idazle katalanak: *Pedro Nolasco Abreu, una vida apasionante*. Orion oso gizon ezaguna izan zen, XX. mendeko azken hamarkadetan, batez ere arraun giroan. *Kubanoa*, era horretan ezagutzen zuen jendeak Orion Pedro Abreu, arraunaren mezenas bat izan zen; lehenengo, Bañolasen, eta gero, Orion.

Jendartea


Kamioi gidari bat atxilotu zuten Aian

Maiatzaren 22an, goizeko zazpiak inguruan, N-634 errepidean, Orio parean, semaforoa gorrian pasa zuen kamioi batek. Ertzainek atzetik jarraitu zioten, araua hautsi zuelako, baina kamioi gidariak abiadura bizkortu egin zuen. Ubegungo bidegurutzean Aia aldera hartu zuen. Industriadun bertan kamioia utzi eta korrika ihes egin zuen. 100 litro gasolinaz betetako lau bidoi zituen kamioi barruan. Bereak ez zirela uste da, izan ere, gasolina ateratzeko erremintak ere bazituen ibilgailuan.

Lanak

Oinezko eta ibilgailuentzat egokitzen direnak

Oriotik pasatzen den N-634 errepide zatian bi lan egiten ari da Eusko Jaurlaritzako Garraio Saila. Batek, tren geltoki azpiko biribilgunea egokitzen ari dira, txikitzen, zubira sartzeko ibilgailu handiek dituzten zailtasunak konpontzeko asmoz. Bestetik, Anibarko Portuko Oriora aldeko autobus geltokia oinezkoentzako irisgarriago egiteko, oinezkoen babesgunea jarri dute errepidearen erdian. Alde batek besterako pasoa erraztu egingo dute horrela.





Benta bidean denboraleak eragindako triskantza. KARKARA

Lanak Benta bidea konpontzeko lanak hasi dituzte

Benta bidean euriteek eragindako kalteak konpontzeko lanak aste honetan hasi dira, azken hilabeteak igaroezin egon ondoren. Udalak bost aste inguru aurreikusi ditu lanak amaitzeko. Hala ere, maiatzaren 24-25eko asteburutik aurrera, bidea ireki-ko dute eta ibilgailuak bertatik pasatu ahal izango dira asteburuetan. Bidea semaforo batekin erregulatuko da. Lanak Campezo obras y servicios enpresak egingo ditu eta 147.713,39 euroko kostua izango du, BEZa barne.

@ karkara.com/albisteak/benta-bidea-konpontzeko-lanak-hasi-dira/



Karlos Argiñano eta Charlie Arturaola K5 upategian. BERRIA.INFO

Zinema The Duel of wine filmaren eszenatoki izan da Aia

Ardoaren desafioa, The Duel of Wine ingelesez. Titulu hori duen filmaren hainbat eszena grabatu dituzte Euskal Herrian, Aia tarte-ko. Andatza auzoan egin dituzte grabaketak, K5 txakolindegiko upategian. zenak dioen bezala, ardoa da filmeko protagonista. Euskal Herrian, ordea, txakolina izango da protagonista. Honela, txakolina nazioartean ezagutarazi nahi dute. Aktoreak Karlos Argiñano sukaldaria eta Charlie Arturaola euskal jatorri-ko sommelieria dira.

@ karkara.com/albisteak/the-duel-of-wine-filmaren-eszenatoki-izan-da-aia/

Zutabe margoketan herriko bi ikastetxe- etakoak



@flickr.com/photos/97102941@N03/set
s/72157644640239684/

Asentzioko feria, egun osoko plan ederra Aian



@ karkara.com/aia/1401191642904

Arrantzatik arrau- nera, Oria ibaian gora eta behera



@ youtube.com/playlist?list=PL-
Zyp5VDV3LF_GfORa3EONRExBWtm1taD

KRITIKA

Aukeran dantza taldekoak Geltokia emanaldian zehar. AUKERAN

Geltokian destinoak aukeran

Kritika Geltokia

Dantza saloa, 'Geltokia' lana maiatzaren 17an aurkeztu zuen Aukeran dantza taldeak, Orioko Karela kiroldegian.

Gearaiz iritxi naizelakoan eseri naiz, baina hara, trena oholtzatik ihes egiten ikusi dut. Mugimendu seduktoreak dituzte hemen paseatzen dabil-tzan hauek eta nik, begira jarri eta besteen harremanen gora beherak irudikatuz, ordu luzez itxaron ahalko nioke nire trenari.

Oholtzan da Geltokia, Kilometroak 2014 Erria Txikota as-teko agertokian izan dugu Aukeran dantza Konpainia. Bede-ratzi dantzariak txukun gauzatzen dituzte mugimenduak, eta gazteenak arin lekualdatzen diren neurrian, beteranoek presentzia eta pertsonalitate sendoz adierazten dituzte geltokiko bizipenak.

Ikusgarriak geltokiko harremanen mikronarratibak lite-ralki kontatzen ditu, XIX. mendearen haserako erromanti-zismoko dantzak bezala, keinu sinboliko eta inpultso mugi-menduz gerturatzen diren dantzarien bitartez. Dantzaldia-ren narratiba orokorra, ordea, abstraktuagoa da eta ikusleei euren interpretazioak eraikitzeke zabalago eskaintzen zaie.

Abstrakzio honekin bat egiten dute fandangoak zein banako-ak, ezagunak zaizkigulako abstrakzio hori interpretatzeko gaitasun gehiago baditugu ere. Hauetan, erromantizmo ha-rremanetan ez bezala, dantzarien arreta laugarren hormara, ikuslegora, zuzentzen da eta, dantzaren eskaintza zuzen ho-rren indarrak, jendea unkitzea lortzen du, sentikor, eszena amaiera gogor txalotzera eramanez.

Txalorik gabeko isilune gutxi izan dira ikuskizunean, ene aburuz, horietako zenbait txalotze isiluneak gudan sortzen duen hutsunea betetzeko beharrak eraginak. Norbere soinu, pentsamendu, eta sentsazioekin bat egitea dakarte hutsune-ek. Trena joatean aurre egin beharreko zuloan topatzen ditu-gunak. Maletari heltzen dio bidaiariak eta txaloari ikusleak.

ENEKO BALERDI



AZOKA

Iragarkietarako txokoa. Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

Salgai

■ Apartamentua salgai Orioko Kale Nagusian. 195.000 eurotan. Eraikin berria, gela bat eta trasteroekin. Garajea aukeran. Dekorazio ezin hobea.

Ainhua: 627 638 776.

■ Etxebizitza salgai Orion. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta terraza. 82 metro² ko adro, terraza kontuan hartu gabe. Garajea aukeran. Benta Enea Etxea, Kale nagusia 28-3 eskubia. Interesatuak deitu 689 555 091 zenbakira edo 943 83 59 43-ra.

■ Garajea salgai Orioko Goiko Kalean - Almirante Oa-. Tf: 688 69 14 45 edo 688 84 43 18

■ Pisua salgai edo alokagai Orion, Kale Nagusian. 2 logela, sukalde-egongela eta komuna. Alokairua 500€, salmenta 140.000€ Interesatuak deitu 661 679 691 telefono zenbakira (Paki).

■ Hiru lekutako sofa eta aginte mandodun relax butaka salgai. 2,20 metro luze eta 0,96 zabal. 2,40x1,70ko alfonbra salgai, hainbat kolore eta irudi geometrikoe-

kin. 943832219 15:00etatik 17:00etara deitu.

■ Etxebizitza ia berria salgai Aian altzariekin. Hiru logela, bi bainu, igo-gailua eta garajea ditu. Azken solairua. 645484958.

■ Garaje itxia salgai Orion, Baxoalde kalean. 677 932428.

■ 16 metro² ko garaje itxia salgai Orion, Goiko Kalean. 699 716 253 edo 669 254 741.

Alokatu

■ Logela alokagai. 100 metro karratu, leku onean. Tf: 657 535 299

■ Lokala alokagai. 38 metro karratu, komuna eta sukaldearekin. Gazteentzako aproposa, plazoleta baten ondoan. 635 731 708 - Oscar

■ Baserri bat alokagai Asteasun, bizitzeko moduan. Tf.: 615 790 965.

Lan eskaintza

■ Etxeko lanak egiteko emakume bat behar dut, urte guztirako. Ingelesa jakitea garrantzitsua. 699 781963

Lan eskaria

■ Gizonezkoa lanerako prest. Baimen guztiak

ditut, eskorga eta zubi-garabiarenak barne.

Lan-arriskuen prebentzio kurtsoa eginda. Tf: 657 535 299

■ Arratsaldetan lana egiteko prest dagoen emakumea. Etxeko lanak eta ume nahiz helduen zaintza. Interesa duenak deitu dezala 653508251 telefonora.

■ Lanerako gogoa eta esperientzia daukan emakumea, garbiketa eta zaintza lanak egiteko prest. 647059103 - Selvia Paredes

■ Emakumea lanerako prest. Adineko pertsonen zaintzan esperientzia eta erreferentziak ditut. 630 850 167 - Maria Elena

Galdutakoak

■ Urrezko pultsera galdut. Katezkoa eta txapabatekin, "Malen" idatzia dauka txapak. Ikastolako pergolan galdu zen maiztaren 8an, 18:45ak aldera. Norbaitek aurkituko balu, deitu mesedez 680 572798ra.

Beste batzuk

■ Ekainetik aurrera trikitixa eta panderoko klaseak eskaintzen ditut. Ander Loretxu 689182840.

ITSASOA

EGUNA	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
01	07:30 eta 19:45	01:17 eta 13:28	
02	08:08 eta 20:23	01:57 eta 14:07	
03	08:49 eta 21:05	02:38 eta 14:49	
04	09:35 eta 21:54	03:23 eta 15:37	
05	10:28 eta 22:50	04:14 eta 16:32	
06	11:30 eta 23:53	05:11 eta 17:34	
07	12:35 eta ____	06:13 eta 18:38	
08	00:58 eta 13:36	07:13 eta 19:38	
09	01:58 eta 14:30	08:08 eta 20:32	
10	02:51 eta 15:18	08:57 eta 21:22	
11	03:39 eta 16:03	09:44 eta 22:09	
12	04:25 eta 16:47	10:29 eta 22:55	
13	05:11 eta 17:32	11:13 eta 23:41	
14	05:56 eta 18:17	11:59 eta ____	
15	06:43 eta 19:03	00:28 eta 12:45	
16	07:31 eta 19:52	01:16 eta 13:33	
17	08:23 eta 20:45	02:06 eta 14:24	
18	09:18 eta 21:42	03:00 eta 15:18	
19	10:19 eta 22:45	03:58 eta 16:19	
20	11:26 eta 23:55	05:01 eta 17:26	
21	12:37 eta ____	06:09 eta 18:37	
22	01:07 eta 13:45	07:16 eta 19:46	
23	02:14 eta 14:46	08:18 eta 20:47	
24	03:12 eta 15:37	09:11 eta 21:39	
25	04:01 eta 16:22	09:57 eta 22:25	
26	04:45 eta 17:02	10:39 eta 23:06	
27	05:23 eta 17:39	11:17 eta 23:44	
28	05:59 eta 18:14	11:53 eta ____	
29	06:34 eta 18:48	12:29 eta 12:29	
30	07:08 eta 19:22	13:05 eta 13:05	

ZAINTZAKO BOTIKAK

NOIZ ZEIN HILABETE

- Ilean, Azaldegi.
- 7an eta 8an, Iriarte.
- 9an, Etxeberria.
- 10ean, Gallo Artiñano.
- 11n, Azaldegi.
- 12an, Zulaika.
- 13an, Iriarte.
- 14tik 20ra, Lasa.
- 21 eta 22, Gallo Artiñano.
- 23an, Azaldegi.
- 24an, Zulaika.
- 25an, Iriarte.
- 26 eta 27an, Mutiozabal.
- 28 eta 29an, Etxeberria.
- 30an, Zulaika.

Azaldegi: Urdaneta kalea, 8.

943 13 31 83 Zarautz

Etxeberria: Gipuzkoa kalea, 17. 943 83 23 98 Zarautz

Mutiozabal: Kale Nagusia, 12. 943 83 29 70 Zarautz

Larrañaga: S. Frantzisko, 16. 943 13 38 14 Zarautz

Lasa: Herriko plaza.

943 83 09 36 Orio

G. Artiñano: Zigordia kalea, 17. 943 13 40 19 Zarautz

Iriarte: Zinkunegi, Pilartxo Enea. 943 13 29 83 Zarautz

Zulaika: Bizkaia kalea, 41. 943 13 39 94 Zarautz

Alustiza Autobusak
Alustiza Bidalak S.L.

Autobus litera eta 16, 19, 25 eta 56 plazakoak. Bidalatu eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Tel. 943 13 28 93/ 83 08 80. Mugikorra: 656 78 30 01- 656 78 29 99

edunitegia
ANTILLA
jalelarea

Abeslari kalea, 2 - Tel. 943 83 23 09

AGENDA



Kalakan, ekainaren 13an kanpinean

Duela bi hilabete, apirilaren 26an, ziren etortze-koak gurera Kalakan taldekoak. Eguraldi txarra medio kontzertua bi hilabete atzeratu eta ekainaren 13an izango ditugu Orion, udal kanpinean. Oraingoan eguraldia lagun izatea espero da, gau-giro ederrean kontzertu paregabeaz gozatu ahal izateko.

Orio

Musika

- Ekainaren 6an, Igelaren Banda taldearen kontzertua, 22:30ean, kultur etxean.
- Ekainaren 13an, Kalakan taldearen kontzertua, 22:00etan, udal kanpinean.
- Ekainaren 16tik 19ra, Danbolin Musika Eskolako ikasleen musika entzualdiak.

Dantza

- Ekainaren 14an, Danbolin Musika Eskolako ikasleen dantza ekitaldia, 17:00etan, Karela kiroldegian.

Bilerak

- Ekainaren 5ean, erraldoiak dantzatu nahi dituztenen bilera, 19:00etan, kultur etxean.
- Ekainaren 7an, Kofradiako batzar orokorra, 10:00etan, Salatxo aretoan.

Orioko Curriculum Sortzen

- Ekainaren 13an, Orioko curriculumaren lehen fasearen aurkezpena, 18:30ean, Kultur Etxean.

Anibarko portuko jaiak

- Ekainaren 21ean, Anibarko portuko jaiak. 10:00etan txupinazioa eta diana

trikitixarekin; 11:00etan puzgarriak, apar festa eta aurpegi-margoketa; 11:30ean jubilatuen hamaiketakoa Kaiua tabernan; 12:00etan Sardina jana eta sagardoa txotxean; 12:30ean tortila patata lehiaketa eta dastaketa; 15:30ean mus txapelketa; 17:00etan haurrentzako jolasak eta txokolate jana; 21:30ean auzokoen afaria, bertso kantuz alaitua eta 23:00etan Xabi Arostegi DJa.

■ Ekainaren 22an, V. Mus Txapelketa, 15:30ean. Izen ematea egun berean; bi-koteko 25 euro. Guztira bost sari jokoa. Informazio gehiago Kaiua tabernan.

Ikastola eguna, ekainaren 7an

- Ikuskizuna goizean, kiroldegian.
- Erria txikotal herri bazkaria, 14:00etan, Ikastola aurreko plazan. Helduentzako menua, 12 euro; umeentzako menua, 8 euto. Txartelak salgai Ikastolako idazkaritzan, Errustan, Gelaton eta Gabonen, ekainaren 3a arte.
- Trikitilariak eta apustu saltsa, bazkalostean.

Zaragueta eguna, ekainaren 7an

- LHkoen dantza ikuskizuna, goizean, eskolan.
- Bazkaria, 14:00etan, eskolan.
- Ikasle eta gurasoekin ekintzak, bazkalostean, eskolan bertan.

Irteerak

- Ekainaren 1ean, Talai Mendi mendi-elkarteak antolatuta, Pagoetara goiz pasa. Irteera: 09:00etan plazan.
- Ekainaren 17an, Zaharretxeak antolatuta, Larrun mendira irteera eta bazkaria Elizondon. Txartela erosteko eguna ekainaren 10a, 16:00etatik 18:00etara. 35 euroko prezioa du eta irteera goizeko 8:15etan izango da.
- Ekainaren 23tik 25era, Ametsa gazte-lekuak antolatuta, Murillo de Callego-nera irteera, DBHko ikasleentzat. Igeri egiten jakin behar da. Izen ematea maiatzaren 30ean Ametsa Gaztelekuan.

Txapelketak

- Ekainaren 14an, Salsa lehiaketa Kultur aniztasunaren jaiaren baitan, 13:30ean, plazan. Izen ematea Orioko bi lokutorietan ekainaren 10a baino lehen.
- Ekainaren 21ean, Euskal Herriko eskolarteko bertsolari txapelketa, Karela kiroldegian.
- Ekainaren 28an, areto futbol txapelketa, 9:30etatik aurrera. Taldeak 16 urtetik gorako 8 jokalariz -gehienez- osatuak egon behar dute. Izen ematea Karelana eta oriokoaft@gmail.com helbidean ekainaren 24a arte.
- Ekainaren 18 eta 19an, Zaharren Babes

Lekuak antolatuta, Toka eta igel txapelketa, 17:00etan, Herriko Plazan.

Bazkaria

■ Ekainaren 13an, Kofradiako langile ohien bazkaria. Izen-ematea: Kofradian

Gure esku dago

■ Maiatzaren 30ean, Gure esku dago aurkezpena Orioko herritarrei, 19:00etan, Kultur Etxean. *Gazta zati bat* dokumentala lehendabizi; ondoren, mokadua eta berriketaldia; eta bukatzeko, Amaren alabak taldearen kontzertua, 22:30ean.

■ Ekainaren 8an, Giza katea. Izen ematea telefonoz, 671070569 deituta.

Aia

Kirola

■ Maiatzaren 31n, VII. Aiako auto igoera. Goizean 10:00etatik 12:00etara egiaztapen proba. Arratsaldean entrenamendua eta hiru txandako igoera.

■ Ekainaren 7an, Gipuzkoako sega txapelketa, 18:00etan lehen saioa Igor Esnaola, Jon Kanflanka, Suharri Irazustabarrena eta Ibon Pardo segalariekin; 19:00etan bigarren saioa Julen Gabirondo, Mikel Garaialde, Juanjoxe Lizaso eta Iñigo Mercaderrekin, Andatza auzoan. Sarrera 10 euro.

■ Ekainaren 8an, Usakume kolombaire-

en tiraketa, goizeko 10:00etan eta arratsaldeko 16:00etan, Andatzan.

■ Ekainaren 8an, Zarautz-Aia XVIII Herri Krosa, 11:30ean, Zarauzko San Franzisko eta Kale Nagusiaren artean.

San Juan Jaiak Iturriotzen

■ Ekainaren 20an, mus txapelketa, 22:00etan. 30 euro bikoteko eta lau sari jokoan.

■ Ekainaren 21ean, auzoko baserrietara bisita, goizeko 9:00etan, Altzuzelaitik abiatuta. Bazkaria, 14:00etan Izurtzu-jatetxean; ondoren, erromeria Laja eta Narbaizaren eskutik eta bertsoak Olsok eta Urdangarinen eskutik. Izer, Alabier eta Lutxurdio erromeria, 21:30ean.

■ Ekainaren 24ean, meza eta ume eta loreen bedeinkapena, 11:00etan. Jarraian herri Kirolak, Sustrai Colina eta Iker Zu-

beldia bertsolariak eta Tapia eta Leturia trikitilariak. Bazkaria, eguerdian eta Tapia eta Leturia trikitilariak, 21:30ean.

■ Ekainaren 25ean, meza ekaitzaren aurka eta auzoan hil direnen alde, 12:00etan. Jarraian hamaiketakoa.

Lardizabal eguna, ekainaren 14an

■ Ekitaldia, goizean.

■ Bazkaria, ondoren.

■ Haurrentzako jolasak, arratsaldean.

Andatza eta Elkanoko festak

■ Ekainaren 29an, San Pedro jaiak, Andatza eta Elkano auzoetan.

Erromeria

■ Ekainaren 1ean, Imanol Intxausti eta Unai trikitilariak, Andatza auzoko Aris-terrazuko plazan, 18:30etik 21:30era.

Ekaineko sarituak

Alex Ortega

Ardatza arropa denda

Milagros Jimenez Blazquez

Berezi arropa denda

30€

Arkupeko dendetan gastatzeko



Izarra Bideoa

aurreztu
- %60
tonerra hemen
bete ezkeru

379 €
HP
500 GB

8 GB / 16 GB
5 € / 9 €
Kingston

199 €
Zanussi
Bitrozeramika
28 cm

10 hilabete
interesik gabe

495 €

Philips
Smart TV
200 Hz

279 €
Zanussi

249 €
Teka A++
6 Kg
1200 r/min

TIEN 21
Eusko gudari, 44 • 943 833 881
TIEN 21

25 urte

Karkara

karkara.com

pauso
asko

AIA

Ekainak 25, asteazkena

20:00etan

Iñaki Perurenaren

"Harri eta Herri" hitzaldia
kultur etxean

Ekainak 27, ostirala

16:30ean

Umeentzako plaza margoketa
Ondoren merienda

20:00etan

Arramazkaren kontzertua

ORIO

Ekainak 28, larunbata

11:00etan

Bikotekako lasterketa

Eguerdian

Euskaltzaleen bazkaria eta kanta saioa

MENUA

Urdaiazpikoa

Patea

Langostinoak

Enstaladilla

Arkumea parrillan letxugarekin

Postrea

Edaria, kafea eta kopa

Txartelak salgai:

12€

Kultur Etxean

Lore burdindegian

